

GRADUA: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua

2014/2015 ikasturtea

SAMURAIK ENPRESARI: JAPONIAKO INDUSTRIALIZAZIOA

Egilea: Ander Arakistain Etxabe

Zuzendaria: Igor Goñi Mendizabal

Bilbon, 2015eko urriaren 9a



EDUKIEN AURKIBIDEA

TAULA, IRUDI ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA	3
Taulak:.....	3
Irudiak:	3
Grafikoak:	3
1. SARRERA	5
2. TOKUGAWA AROA JAPONIAN (1600-1868)	8
2.1 Batasunerako noranzkoa	8
2.2 Protektionismo politika eta munduarekin isolamendua.....	10
2.3 Tokugawa aroaren krisia	14
3. MEIJI AROA JAPONIAN (1868-1912).....	16
3.1 Iraultzaren gauzatzea.....	16
6.1.1 Juramentu gutuna (1868).....	17
3.2 Japoniar lehen konstituzioa	18
3.3 Hazkunde ekonomikoa	19
3.4 Inperioa sortzen.....	23
6.4.1 Lehen Sinojaponiar Guda (1894-1895).....	24
6.4.2 Errusia eta Japonen arteko guda (1904-1905).....	25
4. TAISHO AROA JAPONIAN (1912-1926)	26
4.1 Lehen Mundu Gerra (1914-1918)	26
4.2 Aldaketak Japoniar gizartean	27
4.2.1 Aldaketaren aurrekariak	27
4.2.2 Demokrazia inperialaren ideologia	29
4.2.3 Taisho aroaren azken urteak.....	30
5. SHOWA AROA JAPONIAN (1926-1989)	31
5.1 Etapar militarista (1926-1945).....	31
5.2 Berpizte ekonomikoa eta baliabideak.....	32
5.2.1 Ekonomia planeatu baten planteamendua	34
5.3 “Pacific War” (1941-1945)	36
5.4 Japoniaren okupazioa (1945-1952)	38
5.5 “Planning for Recovery”	39
6. JAPONIA SUPERPOTENTZIA.....	41
7. LANAREN ONDORIOAK	47

8.	BIBLIOGRAFIA.....	50
----	-------------------	----

TAULA, IRUDI ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Taulak:

1.Taula: Japoniako nekazal ekoizpena (725-1874).....	13
2.Taula: Japoniako hiri biztanleria (725-1874).....	13
3.Taula: Japoniako trenbide sarea Meiji aroan.....	21
4.Taula: Munduko trenbide sareak.....	22

Irudiak:

1.Irudia: Japoniako BPG aroz –aro.....	7
2.Irudia: Japonia Tokugawa aroan.....	9
3.Irudia: Japoniako lehen konstituzioa.....	19
4.Irudia: Japoniar inbasioa Txinan 1938.....	36
5.Irudia: Toyota eredua.....	45

Grafikoak:

1.Grafikoa: BPG [Milioi \$ (1990)].....	20
2. Grafikoa: Tokyoko haurren hezkuntza.....	28
3. Grafikoa: Langileen ehunekoak (1908).....	29
4. Grafikoa: Patente, Marka eta Diseinuak.....	35
5. Grafikoa: Boturako eskubideak.....	39
6. Grafikoa: Langile sektoreka 1953.....	42
7. Grafikoa: Langile sektoreka 1989.....	42
8. Grafikoa: Industriaren banaketa 1953.....	42

9. Grafikoa: Industriaren banaketa 1953.....	42
10. Grafikoa: Ekoizpena Arroza.....	43
11. Grafikoa: Nekazal Lurrak.....	43
12. Grafikoa: BPG (Showa).....	44
13. Grafikoa: Inport/Esport eboluzioa 2000 urtearekiko.....	47

1. SARRERA

Gradu amaierako lan honekin gaur egun mundu mailako potentzia ekonomiko handienetarikoa bat den herrialdearen industrializazio eta garapen prozesua aztertu nahi da; Japoniarena hain zuzen ere. Aldi berean, lanean herrialde honek industrializazio prozesua aurrera eraman ahal izateko gizartean eta ekonomiak emandako aldaketa eta erreformak ere aztertuko ditugu, Japoniaren industrializaziorako bidea pausuz –pauso ikusiz.

Japonia uharte multzo edo artxipiologo bat delarik kanpotarrekin izandako harremanak ez dira asko izan, batez ere gaur egun mendebaldeko herrialdeak direnekin, gehienbat Amerikako Estatu Batuekin eta europar herrialdeekin. Baina inperialismoaren agerpenarekin Japonian atzerritarrak agertuko dira, herrialde barruko barne arazoak areagotzea lortuz. Atzerritarrak emari handiarekin iristen hasten diren unean Tokugawa familia egongo da Japonia zuzentzen eta agintariak ikustean garai honetan barne arazo hauek nagusitu zirela, beste zenbait faktoreren artean, Japonia bere baitan zarratzea erabakitzen dute 200 urtez baino gehiago.

Bestalde Japoniaren historian beste hainbat tokitan bezala Amerikako Estatu Batuek ere paper garrantzitsu bat jokatu dute. Izan ere, Japonian erreforma asko martxan jartzen ari zirela, Estatu Batuek japoniar agintarien borondatearen aurka mugak atzerritarrei irekitzera derrigortuko ditu, isolamenduaren aroari guztizko amaiera emanaz. Ondorioz Japoniak atzerritarren aurrerapenak ikusirik, eurak ere ekonomia garapen hori izatea nahiko dute.

Gauzak horrela Japonia Asiako potentzia bilakatzen da, baina bere ekonomiaren hazkunde maila altuari aurre egiteko baliabide eta lehengai falta izango du, Japonian hauek aurkitzen ez dituelarik. Orduan, momentu honetan Japoniak bere inperioa sortzeari ekingo dio Asia osoan zehar; hori bai, guda ezberdinetan herrialde askoren aurka eginez, adibidez, Sobietar Batasuna, Txina, Amerikako Estatu Batuak eta Britainia Handia.

Horrela, Japoniak hau egingo du; estamentuekin bukatu, barne arazoekin bukatu, politika garatu eta erreforma ekonomikoak aurrera eraman.

Japonia, herrialde guztiz atzeratua zen Asiako eta Afrikako beste hainbat herrialde bezala, baina hauek beste guztiek baino beranduago izan zituzten lehendabiziko

harremanak atzerritarrekin. Asiako herrialde gehien maila berean edo antzekoan egotetik, munduko potentziarik handienetarikoa izatera pasatuko da urte gutxitan. Nola eman zen horrelako hazkunde eta garapen maila hain urte gutxitan? Zer egin zuten japoniarrek eta beraien gobernuak hori lortzeko? Hazkunde erritmo azkar horrek beraien politikan eta ekintzetan eraginik izan al zuen?

Hainbat galdera sor daitezke Japoniaren hazkunde eredutik eta japoniar mirari delako horren atzetik. Izan ere, bere garaian seguruenik herrialde asko beraien pausuak jarraitzen saiatu izango ziren, horrelako eredu industrial arrakastatsu baterako bidea lortzeko esperantzarekin.

Horregatik lan honetan helburu ezberdinak izango ditugu japoniar industrializazio prozesuarekiko; Industrializazio prozesua bera nola eman zen aztertzeaz gain, bere gizartearen historia eta ekonomia aztertzea, ekonomia bat industrializatzeko nolako pausuak eman ahal diren analizatzea eta japoniar gizarteak aurre egin behar izan zioten egoerak ikustea.


Bestalde esan behar da lanaren helburu nagusiez gain lan honek ere badituela azaltzen saiatuko garen zenbait azpi –helburu. Japoniarrek beraien herrialdea antolatzeke duten sistema ulertzen ahaleginduko gara, ikusirik ea gure inguruetako antolamendu sistemen antzekoak diren edo ez; bere ekonomia eta industriaren hazkunde azkarraren zergatiak bilatzen ahaleginduko gara; inperioa sortzeko grina hori nondik datorren aztertzen saiatuko gara; munduko beste herrialdeekin izandako harremanak ikusiko ditugu ekintza ezberdinen aurrean eta azkenik, beraien ekonomiaren berezitasunak aurkitzen saiatuko gara.

Lana garatzerako orduan japoniar historiako fase ezberdinak aztertuko ditugunez, fase hauen bidez antolatuko dugu lan osoa; Tokugawa arotik (1600-1868) hasiko gara, Meiji arotik (1868-1912), Taisho arotik (1912-1926) eta Showa arotik (1926-1989) pasatuz, Heisei arora (1989-Gaur egun) iritsi arte. Etapa banaketa hau aurrerago ikusgai dagoen Barne Produktu Gordinaren grafikoan ikusi dezakegu nahiz eta aroen iraupena ez den ondo islatzen grafikoan, izan ere arorik luzeena Tokugawa familiaren aginteari dagokiona izango delako.

Grafikoan ikusi daitezkeen aro bakoitza hitz edo esaldi batekin lotuko beharko bagenu ondorengo hau proposatuko nuke:

- Tokugawa: **Batasuna**
- Meiji: **Garapenaren hasiera**
- Taisho: **Demokrazia**
- Showa: **Hazkunde ekonomiko –industrialia**
- Heisei: **Ekonomiaren kontsolidazioa eta egonkortzea**

1. IRUDIA: JAPONIAKO BPG AROZ -ARO



Iturria: Maddison, A. (n.d.): "World Population, GDP and Per Capita DGP, 1-2003 AD". Portal for Historical Statistics: Japan. <http://www.historicalstatistics.org/> [2015-VI-25ean kontsultatua]

Horrela ba, azken hilabeteotan landutako lan honi hasiera emango diogu Tokugawa arotik hasita.

2. TOKUGAWA AROA JAPONIAN¹ (1600-1868)

Japonian XII. mendetik feudalismoa edo jauntxoaren sistema zen nagusi. Dena dela, esan behar da Europako feudalismoa eta Japoniakoa desberdinak zirela gauza askotan. Desberdintasun horren adibide gisa nekazariak beraiek lantzen zituzten lurak erabiltzeagatik eta hauetan bizitzeagatik zergak ditugu. Europako kasuan ez bezala jauntxo bakoitzak bere lurretako nekazarien zergak jasotzen zituen ondoren bere interesen alde egingo zuten pertsonari ordainketak egiteko.

Jauntxo hauek, beste jauntxo batzuekin aliantzak sortzen zituzten beste jauntxo edo aliantza batzuei aurre egiteko. Bestalde, enperadorea existitzen zen garai horretan baina ez zuen benetako botere politiko eta militar argirik, hau da, irudi bat besterik ez zen. Botere militarren irudi gisa *Shogun* deituriko buruzagia zegoen.

Garai honen hasieraren aurretik, Japonian “guden mendea” deituriko aro garrantzitsua bizi izan zuten 1467 eta 1568 bitartean. Guden zergatia alde batetik aurretik aipatu dugun shogunaren irudiaren oinordekotza aukeraketa da eta beste aldetik Japoniako batasunaren zatikatzea. Zatiketze hau Japoniak nola antolatu behar zuen eztabaidatik sortzen da; bi bloketan zatituz; alde batetik jauntxo zentralistak egongo dira eta bestetik autonomiaren aldeko jauntxoak. Guda hau lehenengok irabazi zuten; *Tokugawa* familiak.

2.1 Batasunerako noranzkoa

Batasunaren hasiera honetan autoritate mota berri bat agertzen da Japoniako lurretan, *Daimio* deituriko irudia; hauek jauntxoaren gainetik kokatzen ziren (gobernadore feudalak). Ondoren, daimio hauek ziren enperadore eta shogunarekin harremanetan jartzen ziren pertsonak eta beraien lur eremuko administrazioaz eta politikaz arduratzen ziren gobernua arautzen zuen legeak aplikatuz.

Urte hauetan Japoniaren benetako edo egiazko batasuna eman zen, bateratze hau lortu zuten pertsonak Nobunaga, Ieyasu Tokugawa eta Hideyoshi izan ziren. Nobunagak Kyoto konkistatu zuen 1568 urtean, “guden mendea” –ri amaiera emanez, boterearen sinboloak zirenak bere esku hartuz, besteak beste enperadorea eta shoguna. Behin Nobunagak boterea lorturik daimio guztiak bere menpe berrantolatu zituen botere


¹ Marín, F. (1985): “*El Japón Tokugawa*”, Cuadernos historia 16, 250 zkia.

militarraren azpian harturik. Dena dela, 1590eko batasun hau lortzeko deszentralizazio txiki bat burutu behar izan zuen, daimio bakoitzari bere botere propioa emanaz baina tratu edo akordio batera iritsiz autonomia hori mantendu ahal izateko; agintari militarri leialak izan behar ziren.

Hori bai, kontutan izan behar da shogunaren boterearen muinik garrantzitsuenetarikoa berak zituen lurren jabetzak zirela. Izan ere Japoniako nekazal lurren laurdena shogunarenak ziren, horrek esan nahi du landa eremuko produkzioaren zati garrantzitsu bat shogunaren eskuetan zegoela.

Gainera, herrialdearen batasuna bermatzeko lur eremuak berrantolatu egin ziren Tokugawa familiaren aurkako etsaitasunak kontuan harturik. Lehenik eta behin shogunatoarekin harreman zuzena zuten etxeak izango genituzke, *Shimpan* deiturikoak; Tokugawa etxeari fidelak izaniko etxeak *Fudai* izenarekin eta azkenik hirugarren talde bat; *Tozama* etxeak, etsaiak.

2. IRUDIA: Japonia Tokugawa aroan



Iturria: Status of Daimiyo. Maps Online, ANU College of Asia & the Pacific. Australian National University. [2015-VI-29an kontsultatua] <http://asiapacific.anu.edu.au/mapsonline/base-maps/status-daimyo>

Tokugawa etxeak garrantzia handia ematen zion Enperadorearen funtzioak eta eginbeharrak kontrolatzeari. Okupazio literarioak, zeremonialak, tenplu ezberdinekin zituen erlazioak eta goi mailako funtzionarioen izendapenak esleitu zitzaizkion. Kontrol honen helburu nagusia Tozama etxeetako kideek Enperadorearen faborerik ez izatea zen eta horretarako Tokugawa etxeak ezkontzen bidez familia inperialean sartzea lortu zuen, modu zuzen batean familiaren barruan ere kontrola izateko.

Administrazioa burutzeko, daimioarekin leialak ziren giza taldeengana jotzen zuten agintariak; normalean estamentu militarreko kideak. Goi-mailako, erdi-mailako buruak eta behe mailako buruak egonik. Laburbilduz, Europan erdi aroan garatu zen feudalismo antzeko sistema ezarri zen Japonian naiz eta Europatik urrun egon.

2.2 Protekzionismo politika eta munduarekin isolamendua

Dena dela, Japonia nahiz eta mendebaldeko herrialdeetatik urrun kokatu merkatariek laster aurkitu zuten ekialdeko herrialde honetarako bidea. Hain zuzen ere, 1540 eta 1640 bitartean, europarrak Japoniako uharteetan zehar ibili ziren merkataritza burutzen, ala nola, portugesak, espainiarrak eta holandarrak batez ere. **Ieyasu** shogunak boterea lortu zuen une beretik atzerritarrekin merkataritza burutzearen aldekoa izan zen, izan ere 1604 eta 1635 bitartean 300 lizentzia inguru eskaini zituen itsasontziek kanpoko beste hiri eta lurrekin merkataritza garatzeko.²

Baina europar merkatarik batzuekin batera misiolari erlijiosoak etortzen hasi ziren, espainiar eta portugesekin; gainera, kezka zabaldu zen herrialdean ezagunak zirelako espainiarrek eta portugaldarrek eginiko konkistak beste herrialde batzuetan, Filipinetan eta Txinan (Gaur egungo Macao penintsulan) eginikoak hurrenez hurren³.

Tokugawa aroaren ezaugarri nagusia aplikatu zen politika protekzionista izan zen, Japonia bi mende eta erdiz munduari bizkarra ematen egon zelarik (1633-1853). Baina honen zergatia ez zen soilik atzerritarrekin batera misiolari erlijiosoak etorri izana; arrazoi gehiago egon ziren:

- 1) Japonia barneko politika egonkortzeko kezka.
- 2) Nazioarteko merkataritza monopolizatzeke nahia.

² Marín, F. (1985): “*El Japón Tokugawa*”. Madrid: Cuadernos historia 16, 250 zkia.

³ Cullen, L. M. (2003): “*A History of Japan, 1582-1941; Internal and External Worlds*”. Cambridge: Cambridge University Press. (33.orrialdea)

3) Kristautasunari beldurra.

Aztertu dugun bezala ordura arte Japoniako bide politikoa oso malkartsua izan zen daimio eta etxe ezberdinen arteko etsaitasunak zirela medio; beraz atzerritarren agerpenak japoniar uharteetan alarmak piztu zituen Tokugawa erregimenaren aldekoen artean. Bestalde, Tokugawa familiaren monopolioa sortzeko grina ez zen bete.

Erljioak bestalde pisu garrantzitsua izan zuen protekzionismo mekanismo hau aukeratzearen aldeko apustu gisa, izan ere japoniar askok kristautasuna besarkatu zuten shintoismoari eta budismoari uko eginez. Baina erlijioaren atzetik ondorengo arrazoi hau zegoen; kristau jarraitzaile izanik agintari gisa shogunaren gainetik aita santua zegoen, beraz kristau erlijioak japoniar gobernu ereduari uko egiten zion, matxinada posible baten arriskua nagusiago eginez.

Aipatu ditugun arrazoiaren eraginez Ieyasu jadanik 1612 urtean kristauen aurkako legeak atera zituen, hala ere, holandarrak bakean utzi zituzten interes bakarria enpresen irabazi ekonomikoak lortzea zelako. 1616an azkenik merkataritza guztia debekatu zen Japonia eta atzerritarren artean, bakarrik Nagasakiko Deshima uharte artifizialean⁴ eta Hiradoko hirietan burutu zitekeen; baina, hala ere gutxi zuten aukera salerosketak burutzeko.

Garai honetako ekonomiari dagokionez lehen sektoreak zuen garrantzi gehiena. Lehen sektorea hasiera batean biziraupenerako zen baina 1600 eta 1730 bitartean nekazaritzan eman ziren aurrerapenei esker produkzioa biziraupeneko izatetik merkatal nekazaritza izatera pasatu zen; adibidez, zerealen produkzioa bikoiztea lortu zen garai honetan. **1 taulan** ikusi dezakegu nekazal ekoizpena 30.173 mila koku -tik 51.073 koku -ra handitzen dela. Guzti hau posible izan zen nekazaritzako tresnak garatu zituztelako⁵, animaliak erabiltzen hasi zirelako luraren lanketan, hazien aukeraketa burutzeagatik eta

⁴ Cullen, L. M. (2003): “*A History of Japan, 1582-1941; Internal and External Worlds*”. Cambridge: Cambridge University Press. (36.orrialdea)

⁵ Maddison, A. (2001). *The world economy: a millennial perspective*, Chapter 1 The Contours of World Development (42.orria). Paris: OECD.

ongarri begetalen erabilera nagusitzeagatik⁶. Horrela, merkataritzaren gorakadak herritarren bizi maila zerbait hobetzea lortu zen⁷.

Aurreko aurrerapenek jendeak truke gehiago egin ahal izatea eta monetaren eskaria igotzea ekarri zuten; baina Japonian metalen gabezia zegoenez ezin zen txanponik ekoiztu, ondorioz Japonian paperezko eskubideak jaulkitzen hasi ziren trukeak egiteko baita enpresen parte-hartzeen edo akzioen erabilera ere. Bestalde, Japonia bizitzen ari zen protekzionismo garaia asko lagundu zion, izan ere atzerritarren produktuengandik babestuta zeuden maila batean, gainera Japonia garai baketsu bat bizitzen ari zen bitartean hiriak pila bat haztea lortu zen shogunaren babespean (**2.Taula**).

Ondorengo taula honetan Japoniako biztanleriari buruzko datuetan ikusi dezakegu urteetan zehar biztanleria handitzen joan dela baina goazen guri interesatzen zaizkigun urteetara (koloreztatueta). Tokugawa aroaren barruan 1600 eta 1730 urteen bitartean eman zen hazkunderik handiena, bai hirietan, baita landa eremuan ere. Datuak begiratu ikusten da 130 urtetan soilik Japoniako hiri biztanleria hirukoiztu egiten dela eta herrialde osoko biztanleria ia bikoiztu. Urte hauetan landa eremuko biztanleria ekoizpenaren igoeragatik eman zen eta hirietakoa merkataritzaren igoeragatik. Dena den, 1730 urtetik aurrera ikusi dezakegu biztanleriaren hazkundera egonkortu egiten dela eta hirietako biztanleria zerbait hazten dela, izan ere nekazaritza eremuan ematen da industrializazio prozesuaren hasiera⁸.

⁶Hanley, S. & Yakamura, K. (1977): “*Economic and Demographic Change in Preindustrial Japan, 1600-1868*”. Princeton: Princeton Legacy Library. [2015-V-30ean kontsultatua] (https://books.google.de/books?hl=es&lr=&id=1Hh9BgAAQBAJ&oi=fnd&pg=PP1&dq=Economic+and+Demographic+Change+in+Preindustrial+Japan,+1600-1868&ots=WEScg_H5iU&sig=ap6-9wqgSL8ZQDgPse4graBF3IU#v=onepage&q=Economic%20and%20Demographic%20Change%20in%20Preindustrial%20Japan%2C%201600-1868&f=false) (101.orrialdea).

⁷ Hanley, S. & Yakamura, K. (1977): “*Economic and Demographic Change in Preindustrial Japan, 1600-1868*”. Princeton: Princeton Legacy Library (78.orrialdea)

⁸ Saito, O. & Takashima, M. (2015). “*Estimating the shares of secondary- and tertiary-sector output in the age of early modern growth: the case of Japan, 1600-1874*” (Txosten zkoa. DP15-4). Tokyo. The Research Center for Economic and Social Risks of Hitotsubashi University.

1. TAULA: Japoniako nekazal ekoizpena (725-1874)

Urteak	Lurzoru erabilgarria (1000 cho)	Lurzoruen eraginkortasuna (koku/cho)	Nekazal ekoizpena (1000 koku)	Nekazal ekoizpena per capita (koku)
725	725	8.49	6.222	1,38
900	1.125	7.99	8.986	1,39
1150	1.061	7.82	8.300	1,32
1280	961	10.71	10.290	1,47
1450	1.188	12.99	15.434	1,47
1600	2.488	12.31	30.173	1,77
1650	2.782	13.32	37.256	1,71
1700	3.110	14.97	47.592	1,70
1720	3.252	14.98	49.882	1,61
1730	3.325	14.98	51.073	1,64
1750	3.477	15.00	53.550	1,73
1800	3.889	15.03	60.308	1,97
1850	4.349	15.74	69.826	2,15
1874	4.594	16.78	77.103	2,21

Iturria: Bassion, J.P.; Broadberry, S.; Fukao, K.; Gupta, B. eta Takashima, M. (2015): "Japan and the great divergence, 725-1874", Working paper series, University of Warwick, 230 zkia, 25. orrialdea, 2. Taula.

2. TAULA: Japoniako hiri biztanleria (725-1874)

Urteak	Hiri biztanleria (1000)	Biztanleria totala (milioiak)	Hiritarren proportzioa (%)	Urteak	Hiri biztanleria (1000)	Biztanleria totala (milioiak)	Hiritarren proportzioa (%)
725	124	4.5	2.7	1500	435	12.3	3.5
800	120	5.5	2.2	1550	643	14.5	4.4
900	120	6.4	1.9	1600	1.032	17.0	6.1
1000	120	6.0	2.0	1650	2.954	21.8	13.5
1150	120	6.3	1.9	1700	3.380	28.1	12.0
1200	213	6.4	3.3	1720	3.615	31.0	11.6
1250	210	6.5	3.2	1730	3.772	31.2	12.1
1280	208	7.0	3.0	1750	4.129	30.9	13.4
1300	207	7.3	2.8	1800	4.055	30.6	13.3
1350	121	8.3	1.5	1850	4.028	32.5	12.4
1400	229	9.3	2.5	1874	3.654	34.8	10.5
1450	326	10.5	3.1				

Iturria: Bassion, J.P.; Broadberry, S.; Fukao, K.; Gupta, B. eta Takashima, M. (2015): "Japan and the great divergence, 725-1874", Working paper series, University of Warwick, 230 zkia, 28. orrialdea, 4. taula.

2.3 Tokugawa aroaren krisia

Yoshimune shogunak garai honetan hainbat erreforma (Kyoho erreformak) martxan jarri zituen daimio bakoitzak zituen arazo ekonomikoei aurre egin ahal izateko:

- 1) Austeritatea bultzatu zuen daimioen gastuak pila bat murrizteko asmoz, izan ere askotan gastuek zergen bidez bildutako dirua baino kantitate handiagoa suposatzen zutelako.
- 2) Nekazaritzako zergei dagokionez, produkzioaren gaineko zerga bat ezarrita egotetik urteroko zerga kantitate bat ezarri zuen eta honek, nekazari txikien haserrea ekarri zuen, izan ere zerga kantitate bera ordaintzen jarraitu behar zuten nahiz eta beraien produkzioa jaitsi edo handitu.
- 3) Arrozaren prezioa egonkortzea lortu zuen prezioen fluktuazioa murriztuz eta monetaren devaluazioarekin bukatu zuen eta merkatarien aurrerapenean lagundu zuen.
- 4) Merkatari eta artisauak kontrolatzeko erakundeak sortu zituen, izan ere, merkatariak sekulako aberastasunak pilatzen hasi ziren merkataritzaren gorakada zela eta.

Yoshimune (1684-1751) Ieshigo Tokugawaren ondorengoa izan zen eta Japoniako Tokugawa familiako 8. Shoguna izan zen. Japoniarrak oso gustura egon ziren bere agindupean, eta jende askoren ustetan Japonia gobernatu zuen agintaririk onenetarikoa zen; horrez gain, Tokugawa shogunetatik industrialenetarikoa eta konpetenteenetarikoa izan zen. Aurretik aipatu ditugun erreforma hauek Japoniar administrazioaren egitura guztiz birmoldatu edo eraldatzea lortu zuen, shogunatoa errentagarri izatea lortuz besteak beste. Goian aipatu ez dugun arren, esan behar da Yoshimunek kulturari garrantzi handia eman ziola, batez ere hau hedatzeari. Ondorioz, atzerritar ezagutzen aurka zeuden oztopoak eta legeak leundu zituen herritarrek eta batez ere japoniar adituek atzerritar ezagutzez balio zitezen Japoniaren garapenean⁹.

Bestalde, Yoshimunen ondorengoek gobernuko boterea hartu zuten une berean berriz ere austeritatea alde batera utzi eta dirua xahutzeaz gain iruzurra ere bueltatu zen

⁹ Goodman, G.K. (2000) "*Japan and the Dutch 1600-1853*". Curzon Press: Richmond. [2015-X-02an kontsultatua]
https://books.google.es/books?id=SzPs4rb2TN0C&pg=PA49&lpg=PA49&dq=shogun+yoshimune&source=bl&ots=uR3Sm_8fqZ&sig=AiOWCLqFjW2DvtYxE0iIBzSJJ_k&hl=es&sa=X&ved=0CFQO6AEwBzgKahUKEwjc9ezGgovIAhXQLogKHbYZB6E#v=onepage&q=shogun%20yoshimune&f=false

Japoniar gobernura. Geroago beste ondorengo batzuek Yoshimunen ideiak eta erreformak berreskuratu zituzten, baina jadanik berandu zen; izan ere, jendek argi eta garbi ikusten zuen shogunatoak zailtasun izugarriak zituela arazoak konpontzeko eta baita gobernu egonkor bat mantentzeko ere.

Atzerritarren presioak ez zion batere laguntzen shogunatoari, atzerritarrek Japoniara sartu nahi zuten merkataritza burutzera eta 1853 urtean Protekzionismoaren amaiera etorri zen modu bortitz batean. Amerikako Estatu Batuak protagonistak izan ziren arazo edo tira-bira honetan; AEB –ko ordezkari gisa Perry komodoroa Edo (gaur egungo Tokyo) hiriko badian sartu zen lege protekzionistei uko eginez eta gauza edo eskubide batzuk eskatu zituen.

Kasu honetan shogunatoak ez zekien zer egin eta erakutsi zen gobernuak ez zuela erreakzionatzeko gaitasunik eta Agureen kontseilutik erabaki bat hartu behar izan zuten; **Kanagawako ituna (1854)**. Itun honen bidez Japoniak portu batzuk ireki zizkion Estatu Batuei eta herrialde honetako kontsul bat uneoro Edon kokatzea ere onartu zuten. Estatu Batuek bide zailena eginda, beste hainbat herrialde atzetik etorri ziren eskubide berdinak eskatzen, adibidez, Frantzia, Errusia eta Britainia Handia.

Garai honetan, shogunaren irudia, irudi bat besterik ez zen, horregatik, 1864 urtean erabaki zen shoguna Enperadorearen ordezkari izatea estatuko gaien zuzendari gisa. Baina azken batean **Yoshinobu**, azken shoguna, ez zen gai izan shogunatoa mantentzeko eta ondorioz gorteetako nobleziak beraien tropak shogunaren palaziora bidali zituzten shogunatoa baliogabetzeko eta Enperadoreari zegokion boterea, bueltatzeko. Honela ba, Tokugawa aroaren amaiera eta **Meiji Iraultzaren** hasiera ekarriko zuten gudak hasi ziren; **Boshin gudak** (1868ko urtarrila-1869ko maiatza).

Garai hartan noble eta samurai asko ez zeuden ados atzerritarrei gobernuak eman zien tratuarekin, izan ere irekieraren ostean 10 urtez atzerritarrek Japoniarekin nahi zutena egiten zuten eta horren erakusle akordio desorekatuak deituriko hitzarmenak ditugu. Modu labur batean esanda guda hau enperadoreari bere boterea bueltatzearen aldeko taldeak irabazi zuen. Alderdi honek atzerritarrekin erlazio edo harreman onak izatea nahi zuen, izan ere interes handia zuen hitzarmen hauek birnegoziatzean. Bestalde, birnegoziatzerik gabe Japoniak zailago izango zukeen garapena eskuratzea. Gainera, gudan galtzaile suertatu zen taldearekin ez ziren txarrak izan eta gobernu berrian parte hartzeko eta kide izateko aukera eman zitzaizen aurretiko agintariei. Beraz, Boshin gudek

erakusten dute Japoniak 14 urtetan herrialde modura izandako modernizazioa nolakoa izan zen.¹⁰

3. MEIJI AROA JAPONIAN (1868-1912)

Meiji aroa 1868 eta 1912 urteen bitartean Japoniak bizi izandako denbora tarteari deritzo. Epealdi honetan Japoniak orain arte bizi ezin izan zuen garapena jasango du, munduko potentzietariko bat izatera helduz. Garai honetan Japoniak orain arte bizi izandako pribilegio garaia bertan behera amaitzen da, izan ere, Samuraien pribilegio hauek garai honetan abolitzen dira; adibidez, orain arte edozein Samuraik edozein herritar hil zezakeen baldin eta samuraiak ikusten bazuen bere izen onaren aurkako zerbait egin zuela herritar horrek. Gainera, pribilegio hauek kentzeaz gain herritarrentzat sinbolikoak ziren eskubideak bueltatzen zaizkie, ala nola, beraien deitura propioa izatea eta ez beraien lanbidearen ondorioz ematen zitzaiena.

Aldaketa hauek hasiera batean iskanbila batzuk sortu zituzten gizartearen artean eta ondorioz altxamendu batzuk ere egon ziren, ala nola, Saigo Takamori –rena (Satsuma matxinada¹¹ baina altxamendua arrakastarekin bertan behera gelditzea lortu zuten gobernutik. Hala ere, iskanbila gutxi batzuk izan ezik Japoniak guztizko egonkortasun maila lortu zuen 40 urteko iskanbilan eta egoera tirabiratsuen ostean.

3.1 Iraultzaren gauzatzea¹²

Autore batzuek Meiji iraultza Frantziakoaren maila berean kokatzen dute izan ere jauntxokeriarekin eta feudalismoarekin amaitu zuen, nazioaren batasuna lortuz. Baina aldi berean Frantziako iraultzarendik urrundu zen demokrazia liberal bat ezarri beharrean monarkia absolutu bat ezarri zuen une berean.

¹⁰ Jansen B. M. (2000). “*The making of Modern Japan*”. Cambridge, Massachusetts: The Belknap Press Of Harvard University Press. [2015-VIII-09an konstultatua] http://www.bakumatsu.ru/lib/Making_of_modern_Japan_Marius_B._Jansen.pdf

¹¹ Satsuma altxamendua mendebalderanzko mugimenduarekin batera etorri zen, izan ere samuraiei eskubideak eta ondoriozko estatus finantzarioa kendu zitzairen, erreformen eraginez. Honek, samuraiarentzat traizio bat suposatzen zuen eta ondorioz gobernuaren aurka agertzeko arrazoi bat zutela ikusi zuten.

¹² Bonifazi, M. (2009). “*Japón: Revolución, occidentalización y milagro económico*” [2015-V-30ean konstultatua], Universidad de Málaga, Observatorio Iberoamericano de la Economía y la Sociedad del Japón: <http://www.eumed.net/rev/japon/05/mb.htm>

Bestalde, Frantziako iraultza jadanik dakigun bezala gizarteko beheko estamentuetatik etorri zen eta Japoniakoa bestalde goitik etorri zen; gainera, askotan atzerritarrek eragindako presioak iraultzaren eztanda ekarri zuela esaten da baina beste faktore batzuk ere eragina izan zuten, herrialdearen barneko egoerek adibidez.

Protektionismoa guztiz amaitu ostean Japoniarentzat derrigorrezkoa zen legedi bat ateratzea, izan ere, ordura arte Japoniak ezin zituen atzerritarrak epaitu legedi horren falta zela eta (gizarte feudala zelako). Gainera, legedirik ezartzen ez zen bitartean arriskua zegoen atzerritar herrialderen batek Japonian zituen interesak zirela eta daimio batzuei armak eta dirua emateko ondoren gobernu berriaren aurka egiteko eta estatu kolpe bat emateko¹³. Horrela ba konstituziorik edo lege gorenik izan gabe atzerritarrek Japoniarrak baldintza txarragoetan uzten zituzten. Ondorioz, aipaturiko legedi baten sorrerak arazo hauek konpontzea ekarriko luke.

6.1.1 Juramentu gutuna¹⁴ (1868)

Tokugawa shogunatoa erori zen une beretik aurrera enperadorea Japoniaren irudi nagusi bilakatu zen eta boterea hartu bezain pronto erreforma edo aldaketa guztiz sakonak planteatu zituen. Lehen erreforma 1868 urtean planteatutakoa izan zen, non “juramentu gutun” bat aurrera eramane zen. Gutun honen bidez aurretik aipatutako egonkortasun totala bilatzen zen eta horretarako gobernuarenganako konfiantza sortzea eta laguntza finantzarioa beharrezkoak ziren.

Gutun hau esate baterako Japoniarren lehen konstituzioranzko norabidearen lehen pausua izan zen; pribilegio batzuk deuseztatzeaz gain ondorengo estatutuak onartu ziren:

- 1) Deliberazio asanbladak ezartzea.
- 2) Japonia aurrera ateratzeko gizarte osoko talde guztien integrazioa ematea.
- 3) Japoniar izaerarentzat eta ohitura propioentzat kaltegarriak ziren ohitura zaharrak deuseztatu.

¹³ Gómez, J. L. (2010). *Japón: la Restauración Meiji (1850-1890)*. [2015-VI-6an kontsultatua] <http://jigs.com.mx/articulos/historia/japon-la-restauracion-meiji-1850-1890/>.

¹⁴ Margadant, G. F. (1984). “Evolución del Derecho Japonés”, Capítulo IX: La Época Meiji (1867-1912); occidentalización desde arriba. (pp.138-169). Mexico: Grupo Editorial, Miguel Ángel Porrúa, S.A [2015-VI-6an kontsultatua] <http://biblio.juridicas.unam.mx/libros/libro.htm?l=550>

- 4) Nazioartean Japoniarentzat erabilgarria izan zitekeen ezagutzaren bilaketa burutzea.
- 5) Arau inperialen zutabeen indartzea.

1871 eta 1873 bitartean, aurretik emandako “Gutun Juramentua” osotu zuten artikulua guztiz bukatzeko ondorengo erabakiak ere hartu zituzten gobernuaren aldetik; **jabetza pribatua onartzea** erabaki garrantzitsuenetarikoa izan zen, izan ere, Tokugawa aroaren amaieran merkatariek eta artisauek ikusi zuten irabaziak handiagoak izango liritekeela baldin samuraiek eta beste noble batzuek beraiek lan egiten zuten toki eta negozioen jabe izango ez balira.

Garai honetan, hain zuzen ere 1871 urtean, Daimioak prefektura izena jaso zuten eta 1880 urtean, prefektoretako 22 ordezkari konbentzio edo batzar nazional bat egin zuten “Asanblada Nazionala” ezarri ahal izateko. Naiz eta gobernu ez zegoen estatu parlamentario baten aurka, egoera politikoaren gainean kontrola mantentzen saiatu zen; baina azkenik enperadoreak bere herritarrei eskubideak eta askatasunak ematearen aldeko apustua egin zuen. Hala ere, subiranotasunak enperadorearen eskuetan jarraitzen zuen, bere jainkotasun izaeraren babesarekin; hau, 1889ko konstituzioan islatuta geratuko da lehen kapituluko lehen bost artikuluetan, aurrerago dagoen irudian ikusi daitekeen bezala.

3.2 Japoniar lehen konstituzioa

Gauzak horrela, Japoniari erregimen motaz guztiz aldatzeko soilik ezaugarri bat falta zitzaien; **Konstituzioa**. Ondorioz, Enperadoreak erabaki zuen norbait izendatu behar zuela konstituzioa burutzearen lan hori egiteko; baina ez zuen edonor izendatu nahi, konfiantzazko pertsona bat izan behar zen eta horregatik **Ito Hirobumi** noblea izendatu zuen lan hori aurrera eramateko. Horretarako, Enperadoreak hasieratik eskatu zion beste atzerritar nazioen legeak aztertzeko, ondoren Japoniar I. konstituzioari forma eman ahal izateko. Itok urteetan zehar lan egin zuen proiektu honetan eta lan askoren ostean hainbat Europar nazioen ideiak oinarritzat hartu zituen konstituzioa egin zuen. Azkenik, 1889ko ekainaren 11n Enperadoreak herritarrei zuzendutako komunikazio batean adierazten zuen herritarrei Japoniako lehen Konstituzioa eskaintzen ziela; horrela, 1890eko udan lehen Parlamentua aukeratu zuten Japoniar herritar batzuk, izan

ere 40 miloi biztanleko herrialde honetan, soilik milioi erdi gizonezko zuten eskubidea hauteskundeetan parte hartzeko¹⁵.

Ito Hirobumi (1841-1909) paper garrantzitsua izan zuen Japoniaren historian, batez ere Japoniaren historia garaikideari dagokionez. Meiji aroan modu aktibo batean parte hartu zuen pertsona garrantzitsuenetariko bat izan zen. Aurretik esan dugun bezala Ito izan zen japoniar lehen konstituzioaren gurasoetariko bat; horrez gain, lehen ministro ere izan zen lau alditan (1885-1888, 1892-1896, 1898 eta 1900-1901 urteetan). Konstituzioa sortzeko aukeratua izatearen arrazoietariko bat atzerritar herrialdeekiko zuen ezagutza zen, izan ere urte askoz Britainia Handian egon zen ikasten mendebaldeko ikasketak eta Europan zehar eta AEBn zehar japoniar gobernuarentzat lanean ibilitako pertsona bat zen. Baina 1909 urtean Manchurian zegoela Korearen independentziaren aldeko pertsona batek tiro batez hil zuen. Datu bezala esan behar da Ito Korearen alde egiten zuen agintarietariko bat zela [Margadant, G. F. (1984)].

3. Irudia: Japoniako lehen konstituzioa

1. Kapituluak: Enperadorea	
I. Artikulua.	Japoniako inperioa mendeetan zehar Enperadore lerro baten bidez gobernatuko da.
II. Artikulua.	Etxe inperialaren arauak dioten bezala tronu inperiala Enperadorearen gizonezko ondorengoek jasoko dute oinordetzan.
III. Artikulua.	Enperadorea sakratua eta bortxa-ezina da.
IV. Artikulua.	Inperioaren burua Enperadorea izango da; subiranotasunaren eskubideak bere baitan egongo dira eta konstituzio honen bidez eskubide horiek arautzen dira.
V. Artikulua.	Enperadoreak botere legegilea izango du Dieta Inperialaren eskumena eta onarpenarekin.

Iturria: Tiedemann, H., “*Breve historia del Japón moderno*”, Editorial El Ateneo, Buenos Aires, 1965, PP. 141 y ss.


3.3 Hazkunde ekonomikoa

Gobernuko gauza hauek guztiak behin eginda izanik, Japoniak izugarritzko aurrera pausua eman zuen herrialde modura eta batez ere ekonomiari dagokion arloan. Baina

¹⁵ Tiedemann, H., “*Breve historia del Japón moderno*”, Editorial El Ateneo, Buenos Aires, 1965, PP. 141 y ss.

herrialdeak soilik 40 urte behar izan zituen herrialdea legeekin arautzeko, batasun nazionala lortzeko eta hezkuntza eta ejertzito garatu propio bat sortzeko. Harrigarriena da herrialde oso atzeratu bat izan zenak hain azkar Txina aurreratu izatea eta Europar eta Ipar Amerikako herrialdeen maila bera lortzea; nahiz eta ekoizpenean oraindik mendebaldeko herrialdeak ez gainditu¹⁶.

Baina Japoniaren hazkunde azkar honek baditu bere arrazoiak, alde batetik 3.000 atzerritar aditu erabili zituen ingelesa erakusteko zientzietan, ingeniartzan, milizian eta nabigazioan jadanik adituak ziren Japoniarrei; eta bigarrenik, hainbat japoniar ikasle mendebaldeko herrialde ezberdinetara bidali ziren atzerritar herrialdeetako ezagutzak Japoniara bueltan ekartzeko eta ondorioz Japoniaren aurrerakuntza lortzeko. Garapen eta modernizazio azkar eta indartsu hau Meiji gobernuak finantzatutakoa izan zen bertako enpresa handiei indarra eta boterea handituz. *Zaibatsu*¹⁷ -ek (adibidez Mitsui eta Mitsubishi enpresek) ikusirik Meiji gobernuaren laguntzak pila bat lagundu zietela, hauek ere enpresa txikiagoei laguntzeko, mendebaldetik teknologia berria ekartzen lagundu zioten Meiji gobernuari; ondorioz Japoniak Asiako merkatuan kontrol handia lortzen joan zen.



Iturria: Maddison, A. (n.d.): "World Population, GDP and Per Capita DGP, 1-2003 AD". Portal for Historical Statistics: Japan. <http://www.historicalstatistics.org/> [2015-VI-25ean kontsultatua]

Meiji gobernuko agintariak nazioaren modernizazioarekin jarraitu zuten, horretarako beharrezkoa zen obra eta azpiegitura handiak egitea, batez ere hirien eta prefektura

¹⁶ Maddison, A. (2001). "The world economy: a millennial perspective", Chapter 1 The Contours of World Development (44.orria). Paris: OECD.

¹⁷ Zaibatsuak integrazio bertikal osoa lantzen zuten monopolio bertikalak ziren, hauek familia batek kontrolatzen zituen eta enpresa talde osoaren gainetik jabe bezala matrize bat zegoen; askotan bankuak izaten zirenak. Zaibatsu garrantzitsuenak **Mitsui**, **Mitsubishi**, Sumitomo eta Yasuda ziren. (Nishijima, S. (2009)

ezberdinen arteko komunikazioak hobetzeko asmoarekin; horregatik, agintariek Japoniako hiri garrantzitsuen artean telegrafoen sarea zabaldu zuten, ontziolak ere eraiki ziren, armagintzako lantegiak, ehungintzako lantegiak eta beste industria ugarietako fabrikak ireki ziren.

Garai honetan, Japoniar ekonomian eta gizartean gaur egun hain garrantzitsuak diren trenbideak eraikitzen hasi ziren, izan ere garrantzia handia eman zion Meiji gobernuak hirien arteko komunikazio mota hau garatzeari. 3. taulan gainera argi eta garbi ikusten da Meiji aro osoan zehar 8.000 km trenbide erabilgarri jartzen direla, trenbidez lotutako Japoniari hasiera emanez. Hasiera batean enpresa bakarrak ustiatzen zuen trenbide sarea *Japan Railway Group* deituriko taldeak, baina 1881etik aurrera sektorearen liberalizazioarekin enpresa gehiago agertzen dira urtez urte.

3.TAULA: Japoniako trenbide sarea Meiji aroan

Urtea	ENPRESAK	LANGILEAK	KM ERABILGARRIAK	Urtea	ENPRESAK	LANGILEAK	KM ERABILGARRIAK
1872	1	93	29	1892	20	2.990	984
1873	1	...	29	1893	23	...	995
1874	1	...	62	1894	29	9.893	1.029
1875	1	...	62	1895	34	10.964	1.049
1876	1	210	105	1896	38	14.000	1.114
1877	1	...	105	1897	46	17.079	1.163
1878	1	...	105	1898	62	17.774	1.415
1879	1	...	118	1899	69	18.612	1.438
1880	1	...	158	1900	77	20.882	1.626
1881	1	380	197	1901	79	22.414	1.803
1882	2	...	275	1902	83	23.702	2.072
1883	3	...	292	1903	89	23.662	2.262
1884	3	...	292	1904	92	23.461	2.449
1885	3	...	360	1905	97	28.878	2.562
1886	4	...	426	1906	92	59.647	4.978
1887	4	1.004	484	1907	87	88.266	7.153
1888	9	1.004	814	1908	91	89.868	7.311
1889	15	1.260	984	1909	102	90.131	7.442
1890	18	2.574	984	1910	116	95.627	7.838
1891	19	2.901	984	1911	135	103.418	8.118

Iturria: Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan [2015-VI-20 an kontsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>

4.TAULA: Munduko trenbide sareak				
	1840	1850	1860	1870
Britainia Handia	2.390	9.757	14.603	20.000
Frantzia	410	2.915	9.167	15.544
Belgika	334	854	1.729	2.897
Alemania	469	5.856	11.089	18.876
Austria	144	1.357	2.927	6.112
Errusia	0	501	1.626	10.731
Espainia	0	28	1.880	5.316
Italia	20	620	2.404	6.429
AEB	4.500	14.400	49.000	85.400

Iturria: Comín, F., Hernandez, M. eta Llopis, E., (2005) Munduaren historia ekonomikoa 221.orria. UPV/EHU argitalpen zerbitzuak. [2015-X-01ean kontsultatua],

Aurreko 4. taula honetan Europako eta munduko beste zenbait herrialdeen trenbide sareen datuak ikusi ditzakegu. Datei dagokionez argi eta garbi ez datozela Japoniako datuekin bat, hala ere, esan behar da taulan argi eta garbi islatzen dela Japoniaren guztizko atzerapena mendebaldeko beste herrialdeekiko. Adibidez, Japonian 1900 urtean erabilgarri zeuden trenbide kilometro kopuru totala Errusiak 1860 urtean jadanik bazituen, hau da atzerapen oso sakona ikusi daiteke beste herrialdeekiko. Gainera, Japoniak 1911 urtean zituen tren kilometro kopurua herrialde askok jadanik luzera handiagokoak zituzten 1870 urtean.

Baina, erreforma hauek guztiek ez zuten bermatzen Japonia Inperio bat izatea, izan ere atzerritarrek Asiako lurak kolonizatzeke zuten grina oso handia zen; orain arte Japoniak ez zuen atzerritarrek kolonizaziora bultzatzeko beste baliabide, baina garai honetan Japoniak industria garatu zuenez eta potentzia bat bilakatzen ari zenez, kolonizaziorako helburu bilakatu zezakeela uste zuen.

Ondorioz, Japoniako gobernuak herrialdearen aldeko defentsa burutuko zuen armada ekipatzeari eta baliabide hobeagoz hornitzeari ekin zion, atzerritarren eraso posibleengandik babesteko gai izateko. Horretarako, sistema militar hau guztiz osatzeko, herrialde atzerritarren egiturak aztertu zituzten, bertako aholkulariak bilatu zituzten eta Japoniako kadete asko Europa eta Amerikako Estatu Batuetako eskola

militarretara bidali zituzten bertako sistemak ikasteko eta ondoren ezagutza Japoniara eramateko.

Gauzak horrela Japoniak, hemendik aurrera, 250.000 pertsonaz osatutako eta mendebaldeko gerra sistema ikasitako ejertzito bat izango du bere esku, enperadorearen eta nazioaren alde borroka egiteko zinarekin. Armagintzaren ekoizpena ere bere fruituak ematen hasten da eta 1894 –rako Japoniak gerra itsasontzi eta torpederoak bere armada gaztean barneratzen ditu; honek, hau da Japoniak mendebaldeko herrialdeen ikuspegia barneratzeak, Japonia inperialismorako noranzkoan jartzen du momentu horretara arte ez bezala¹⁸.

3.4 Inperioa sortzen.

Japonia jadanik Asia kontinenteko herrialde garatuena zen, bere gobernuak ondo finkatuta eta araututa zegoen. Ekonomiak urteetan eginiko erreforma eta aurrera pausuen ostean bere fruituak ematen hasi zen. Baina japoniar gobernuak arrisku bat ikusten zuen inguruan; europar inperioak Asian zehar zebiltzan koloniak egiten eta noski, oraindik kolonizatua izatearen mamua presente zegoen. Gauzak horrela japoniar gobernuak uste zuen kolonizazio prozesu bakarra japoniar uharteengandik gertuen zegoen lur eremuetatik etor zitekeela; Koreako penintsulatik hain zuzen ere¹⁹.

Korea Txinaren menpean zegoen estatu bat besterik ez zen, baina Japoniar gobernuak uste zuen inbasioa bertatik etorriko zela arinago edo beranduago, kontuan izanik Errusia, AEB, europar herrialdeak eta Txina inguruan zebiltzala lur eremu berrien bila. Gainera japoniarrek bazekiten Koreako lurretan Japoniaren industrializazioa garatzeko beharrezko baliabide mineralak lor zitzakeela, ikatza eta burdina besteak beste.

Ondorioz, aukera bakarra zeukan Japoniak; Korea inbaditu, lehenik eta behin bere mugak uharte printzipaletatik urruntzeko eta bigarrenik industrializazioa bermatzen zuten baliabideak kontrolatu ahal izateko.

¹⁸ “*Las reformas de Japón a mediados del siglo XIX*”. (2010). [2015-VI-16an kontsultatua], <http://sobrehistoria.com/las-reformas-de-japon-a-mediados-del-siglo-xix/#>

¹⁹ Szczepanski, K. (n.d.). “First Sino-Japanese War, 1894-1895”. [2015-VIII-16an kontsultatua] <http://asianhistory.about.com/od/warsinasia/a/First-Sino-Japanese-War.htm>

6.4.1 Lehen Sinojaponiar Guda²⁰ (1894-1895)

Guda hau 1894ko uztailearen 25ean hasi zen eta ordura arteko Japonia eta Txinaren arteko tirabiren ondorio izan zen. Gainera, Japoniak Txinarekin guda inolako abisu ofizialik egin gabe hasi zuen; hain zuzen ere, txinatar gudako itsasontzi bat hondoratu. Europar potentziak herrialde hauen gudaren ikusmiran geratu ziren. Txinatar armada galtzaile izan zen guda osoan zehar izan ere Japoniar armada oso garatua bilakatu baitzen oso denbora gutxian, herrialde honetan eginiko erreformengatik. Bestalde, Txinaren antolamendua gudaren aurrean oso eskasa izan zen; honek eragin zuen guda horrelako azkar galdu izana, izan ere Txina barruan erreformak ez ziren guztiz aurrera eramanez edota ez zeuden ondo planeatuta eta gero gobernuan zegoen sekulako ustelkeriak ez zion batere lagundu. Beraz, guda honek ez zuen beste modu batera amaitu; Txina lotsatan geratu zen Japoniaren boterearen aurrean. Bestalde, esan behar da guda honek ez zuela erantzun justu bat izan; Txinak ez zuen astirik izan gudarako prestatzeko, Japoniak bai ordea.

Gudak soluzio bakarra zuen Japoniaren ustetan; Korean erreforma batzuk martxan jartzea hauek Japoniaren kontrola bermatzeko Korearengan. Baina Frantzia, Errusia eta Alemaniako europar potentziak Txinaren alde agertu ziren (Errusiak nahiago zuen Korea Txinatar ahulen eskuetan egotea Japoniarren eskuetan baino). Ondorioz, Japoniak Txinarekin akordio batera iristea erabaki zuen, Txina kaltetu nagusi bilakatzen zen akordio batean.

Gauzak horrela 1895eko apirilaren 17an Shimonoseki –ko hitzarmena gertatu zen, non Japoniak Txinaren boterean zeuden uharte batzuk eta Liadong –eko penintsula bereganatu zituen, Formosa (gaur egungo Taiwan) barne eta azkenik Korea automatikoki japoniar protektoratu bat bilakatzen zen. Bestalde, Txinarentzat ez ziren soilik lur eremu galerak izan, Japoniari diru kantitate bat eman behar izan zion gerraren ordainketa gisa, 200 milioi zilarrezko *Tael*²¹ eta gainera Txinarekin merkataritza burutzeko eskubideak eta tratu faboragarriak lortu zituen. Bestalde giza galeretan

²⁰ Fung, A. (1996). “*Testing the Self-Strengthening: The chinese Army in the Sino-Japanese War of 1894-1895*”. (pp. 1007-1031) Britain: Cambridge University Press.

http://www.jstor.org/stable/312957?&seq=1#page_scan_tab_contents [2015-VII-06an kontsultatua]

²¹ Neurri hau Txina eta beste Asiako herrialde batzuetan erabiltzen zen neurria da. Tael 1 = 40 gramo.

Txinak Japonia baino 7 aldiz galera gehiago izan zituen hildako eta desagertuen artean, 35.000 eta 5.000 hurrenez hurren.

Hitzarmenaren ostean bestalde, hitzarmenean parte hartu zuten hiru potentzia europarrek beldurrez ikusten zuten Japoniaren zabalkuntza eta ondorioz Liadongo penintsulako *Port Arthur* Errusiari saltzera “gonbidatu” zuten 30 milioi tael ordainetan jasoz²². Ekintza honek 10 urte inguruko tirabiren ostean Japonia eta Errusiaren arteko gerra batean amaituko du 1904 urtean.

6.4.2 Errusia eta Japoniaren arteko guda²³ (1904-1905)

Txinarekin egin zuen moduan Koreako gudan, Japoniak oraingo honetan Errusiari eraso egin zion Port Arthur –en inolako abisurik gabe. Baina eraso honen zergatia Errusiaren zabalkuntza grinatik dator, hau da, bere estrategiaren parte zen Korean kontrola izateko. Japoniak Errusiari eskatu zion onartzeko Korea Japoniaren eremua zela; baina Errusiak honi uko egin eta 38. paralelotik gorako lur eremua (Ipar Korea) emateko eskatu zion gune neutral modura bi inperioen artean. Japoniak hau ez zuen onartu eta aurretik esan bezala itsasotik eraso zion Errusiari Port Arthurren 1904ko otsailaren 8an.

Japonia guda honetatik garaile irten zuen izan ere bere estrategia eta taktikak errusiarrenak baino askoz garatuagoak izan ziren. Hala ere, Japoniak giza galera handiari aurre egin behar izan zion. Gutxi gora behera 58.000 inguru galdu zituen borrokan eta 22.000 inguru gaixorik, Errusiak 38.000 eta 19.000 hurrenez hurren. Datu ekonomiko gisa esan guda honen kostua garaiko 1,7 milioi Yen –ekoa izan zela, Sino-Japoniar gudarena baino zortzi aldiz handiagoa²⁴.

Guda hau Portsmouth –ko itunarekin (1905-09-05) bukatu zen, non AEB -k bi herrialdeen arteko bake egile lanak egin zituen. Itun honek ez zituen japoniar jendearen usteak bete, izan ere esfortzu handia suposatu zuen japoniarrentzat ekonomikoki zein

²² Szczepanski, K. (n.d.). “*First Sino-Japanese War, 1894-1895*”. [2015-VII-16an kontsultatua] <http://asianhistory.about.com/od/warsinasia/a/First-Sino-Japanese-War.htm>

²³ Szczepanski, K. (n.d.). “*Facts on The Russo-Japanese War*”. [2015-VII-16an kontsultatua] <http://asianhistory.about.com/od/warsinasia/p/Russo-Japanese-War-Quick-Facts.htm>

²⁴ Gordon, A. (1952). “*Labour and Imperial Democracy in Prewar Japan*”. Oxford: University of California press. [2015-VII-20 an kontsultatua] https://books.google.de/books?id=lzKRQII7D5oC&pg=PA6&lpg=PA6&dq=taisho+democracy+free+book&source=bl&ots=dtFw6j7tvl&sig=37xvY0jHvTKXAfKk7wR4aKxK21s&hl=es&sa=X&ved=0CEYQ6AEwBW0VChMI-X_x_S3xwIVC9YaCh1ulgFz#v=onepage&q=taisho%20democracy%20free%20book&f=false .

giza baliabideei zegokionez. Manchuria inguruko lurrak bereganatzeaz gain Korea 1910 urtean anexionatu zuen.

Guda honetatik Japonia garaile nagusi bezala ikusi zen mundu osoan eta europar potentzia bat garaitzen zuen lehen herrialde asiarra bilakatu zen. Gainera, Errusiarentzat guda honek sekulako ondorioak izan zituen, izan ere 1905ko iraultzaren arrazoiatariko bat izango da.

4. TAISHO AROA JAPONIAN (1912-1926)

Meiji aro arrakastatsua behin bukaturik Japonia munduko potentzia handienetariko bat zen. Ekonomia modu onean aurrera zihoan eta hazten jarraitzeko itxura zuen. Garai honetan ekonomiak baino garrantzia handiago izan zuen politikak; izan ere, Yoshihito enperadoreak gaixorik emango ditu bere aroko urte gehienak eta ondorioz delegatu egin beharko du bere boterea Dietan eta Asanblada Nazionalean.

Nahiz eta Taisho Demokrazia ofizialki 1912 urtean hasi, baieztatu dezakegu Errusia eta Japoniaren arteko guda ostean jadanik ikusten zirela nolako aldaketak emango ziren hurrengoko aroan. Garai honetan Batzar Nazional baterako deia ere egina zegoen honi buruz hitz egiteko eta ondoren gobernuak hau galarazi zuen, sekulako iskanbilak sortuz Tokyoko hirian. Iskanbiletan parte hartutako jendea atxilotu, zauritu edota hil egin zituen gobernuaren errepresioak; beraz gizartean zegoen haserrea gobernuarekiko jadanik nagusia zen eta honelako ekintzek hau areagotzea besterik ez zuten egiten. Beraz, Taisho demokraziaren hazia hemen landatzen hasi zela esan dezakegu²⁵.

4.1 Lehen Mundu Gerra (1914-1918)²⁶

Taisho garaiko ekintza nagusi gisa Japoniarentzat hain ez parte-hartzaile izan zen Lehen Mundu Gerra eman zen (1914-1918). Japonia Aliatuen taldea osatzen zuten

²⁵ Takayoshi, M. (1966). The Development of Democracy in Japan, Taisho Democracy: Its Flowering and Breakdown. *The Developing Economies*, 612-637. [2015-VII-22an kontsultatua] <http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/j.1746-1049.1966.tb00495.x/pdf>

²⁶ Craft, S. G. (1963). "V. K. WELLINGTON KOO and the Emergence of Modern China". Kentucky: The University Press of Kentucky. [2015-VII-22an kontsultatua] <https://books.google.de/books?id=y70eBgAAQBAJ&pg=PA264&lpg=PA264&dq=Great+Britain+and+the+Twenty-One+Demands+of+1915&source=bl&ots=vNOxckeXU&sig=PcGQGG8TjfwPHDLIC8Yz4PmtCck&hl=es&sa=X&ved=0CEcQ6AEwBWoVChMiuIaHjKK4xwIVRNsaCh1aDQt3#v=onepage&q=Great%20Britain%20and%20the%20Twenty-One%20Demands%20of%201915&f=false>.

herrialdeekin bat egin eta Alemaniari gerra deklaratu zion, honek zituen zenbait lur eremu okupatzeko intentzioarekin. Bestalde, Lehen Mundu Gerrak ez zuen izan bestelako eragin nagusirik Japonian, izan ere guda gehienak Europan eman ziren, Versalleseko itunean (1919) Alemaniaren lurak ofizialki esleitu zitzaizkion Japoniari.

Japoniak bere politika inperialistarekin jarraituz Asian zehar, batez ere Txinan, Aliatuen taldeko herrialdeen eta beste zenbait herrialdeen onespina ez zuen ekintza bat aurrera eramaten; 21 eskariak (1915). Eskari hauek modu sinple batean esanda Txinako herrialdea japoniar protektoratu bezala uzten zuten eta noski bere ekonomiaren kontrola Japoniak izango zuen. Britainia Handiak eta AEB –k Japoniarekiko ezkor agertu ziren. Gainera Txinako gizartean Japoniaren aurkako sentimendua areagotzeaz gain, boikot komertzial bat aurrera eramaten dute Japoniar esportazioak Txinarako %40 murriztuz. Bestalde, Japonia derrigortua izan zen Britainia Handia eta AEB –engatik Txinarekiko kontrol osoa emango zion bost eskari atzera botatzera; azkenik, Txinak onartu egin zituen 21 eskari horiek.

4.2 Aldaketak Japoniar gizartean

[Gordon, A. (1952)] Esan bezala, Japonia momentu honetan hasten da demokrazia baten itxura hartzen. Orain arte Japonia Meiji garaian ezarritako sisteman antolatzen zen non Meiji aroko oligarkak gobernuko kide eta langile bilakatu ziren. Beraz, bere garaiko konstituzioan eta juramentu gutunean ez zegoen egiazko botererik herriaren eskuetan. Niretzat oso interesgarria da aztertzea nondik datorren aldaketa hau, edo zerk bultzatu zuen hau gertatzea, beraz ondoren Taisho garaiaurrekari politikoak aztertuko ditugu gaineratik ulertzeko non hasi zen gizartearen pentsamendu aldaketa hori.


4.2.1 Aldaketaren aurrekariak

Meiji garaiko azken urteetan ekonomia aurrera zihoan heinean japoniar gizartean burges txikien kopurua handitzeaz gain, klase ertaina ere sortu zen. Giza talde hauek eskubide gabekoak ziren japoniar politikan eta burujabetzan, izan ere sistema oligarkak ez zieten botere izpi txikienik uzten beraien eskuetan. Beraz aldaketa honetarako aldarrikapenak bi talde hauen aldetik etorriko da hurrengo urteetan.

Momentu honetan gizatalde ezberdinak biltzen hasiko dira Japoniaren sistema politikoari buruz hitz egiteko, egitura politikoa zuten taldeak osatzen hasiz, ala nola sindikatuak eta alderdi politikoren batzuk. Talde hauek behin sortuta, kide zirenak argi

eta garbi ikusi zuten garaiko burokraziari aurre egiteko antolakuntzaren beharra zegoela eta gainera, uste zuten langile ezberdinen, nekazari txikien eta intelektualen eskariak bereganatuz gero beraien aldeko babes askoz handiagoa izango zela.

Meiji aroko konstituzioa, gobernuaren aurka agertu zen jendearen aprobazioa lortzeko eginiko dokumentua izan zen. Baina, Meiji gobernuaren aldeko tresna bat izan behar zuena, beraien aurka bilakatu zen; hezkuntza. Hezkuntzaren bidez gobernukoek japoniar haurrak doktrinatu nahi zituzten erregimenaren aldeko herritarrak bilatzeko, horregatik hezkuntza unibertsalaren politika aurrera eraman zen, baina hezkuntzarekin batera literatura ere garatu zen eta noski jadanik Japoniaren mugak zabalik egonda, laster iritsi ziren beste herrialdeetatik sistema ezberdinei buruz hitz egiten zuten liburu eta idatziak. Beraz, herritarrak antolatzen hasi ziren elkarte ezberdinetan. Gainera, anekdota gisa esan Japonian garai honetan hasi zirela egunkariak sekulako arrakasta izaten jende xumearen artean, eta noski egunkarien “egarri” hori hainbat egunkari berriz bete zen, asko gobernuaren sistema kritikatzeko helburu zutenak.




Iturriak:

Gordon, A. (1952). “*Labour and Imperial Democracy in Prewar Japan*”. Oxford: University of California press. 18.orria [2015-VIII-5ean kontsultatua]
https://books.google.de/books?id=lzKRQII7D5oC&pg=PA6&lpg=PA6&dq=taisho+democracy+free+book&source=bl&ots=dtFw6j7tvI&sig=37xvY0jHvTKXAFkK7wR4aKxK21s&hl=es&sa=X&ved=0CEYQ6AEwBWoVChMI-X_x_S3xwIVC9YaChIulGfz#v=onepage&q=taisho%20democracy%20free%20book&f=false

Jansen B. M. (2000). “*The making of Modern Japan*”. Cambridge, Massachusetts: The Belknap Press Of Harvard University Press. 537.orria [2015-VIII-09an kontsultatua]
http://www.bakumatsu.ru/lib/Making_of_modern_Japan_Marius_B._Jansen.pdf

Aurrekari ideologikoez gain aurrekari ekonomikoez garrantzi handia dute demokraziaren sorreran, izan ere, askotan hazkunde ekonomikoaren aitzakiarekin desberdintasunak ematen hasten dira gizartean. Garai honetan ekonomikoki Japonia egoera honetan zegoen:

Industria pisutsua izugarri hazi zen gerra garaiek eraginda, Japonia Europaren eta munduaren hornitzaile bilakatzen hasi zen bere ekonomiari bultzatuz. Garai honetan hiriak berriz ere hazten hasi ziren batez ere Tokyo eta Osaka, datu bezala 1900 eta 1914-1918 (Lehen Mundu Gerra) bitartean industriara dedikatzen ziren langileen kopurua bikoiztu egin zen 400.000 langiletik 853.000 langilera pasatuz. **3. grafikoan** ikusi daitezke langileen banaketa nola zegoen 1908 urtean, baina harrigarriena da pentsatzea Meiji aroko lehen erdian Tokyoko hiritarren ia erdia burokratak eta elite



Iturria: Gordon, A. (1952). “*Labour and Imperial Democracy in Prewar Japan*”. Oxford: University of California press. 21. orria [2015-VIII-5ean kontsultatua]

https://books.google.de/books?id=lzKRQII7D5oC&pg=PA6&lpg=PA6&dq=taisho+democracy+free+book&source=bl&ots=dtFw6j7tvl&sig=37xvY0jHvTKXAfKk7wR4aKxK21s&hl=es&sa=X&ved=0CEYQ6AEwBW0VChMI-X_x_S3xwIVC9YaCh1ulgFz#v=onepage&q=taisho%20democracy%20free%20book&f=false .

horretako gizataldeak osatzen zuela.

Gainera, hirien hazkundearekin batera hirira biztanle gehiago iritsi zen eta ondorioz merkataritzak sekulako gorakada izan zuen berriz ere burges txikien kopurua handituz.²⁷

4.2.2 Demokrazia inperialaren ideologia

1905 eta 1918 bitartean Japonian zehar matxinada eta langileen mugimendu ugari eman ziren, jendea orain arteko erregimen guztiz zaharkituaz eta herrialdea gobernatzen zuen

²⁷ Gordon, A. (1952). “*Labour and Imperial Democracy in Prewar Japan*”. Oxford: University of California press. [2015-VII-22 an kontsultatua]

https://books.google.de/books?id=lzKRQII7D5oC&pg=PA6&lpg=PA6&dq=taisho+democracy+free+book&source=bl&ots=dtFw6j7tvl&sig=37xvY0jHvTKXAfKk7wR4aKxK21s&hl=es&sa=X&ved=0CEYQ6AEwBW0VChMI-X_x_S3xwIVC9YaCh1ulgFz#v=onepage&q=taisho%20democracy%20free%20book&f=false .

elitearekin aspertuta zeudelako. Ondorioz, hau aldarrikatzen hasi ziren; presidenteak Enperadorearen eta herritarren nahiak errespetatu behar zituela.

Bestalde, demokrazia inperialaren ideologia azaltzeko terminoa bera azaltzea besterik ez dago; demokrazia bat izango da baina enperadorea izan nahi duena, hau da egitura inperial bat onartzen dute eta gainera politika inperialistarekin, hau da koloniak egiten jarraitzearen aldekoak izango dira. Horrez gain, printzipio parlamentarioak ezartzea (adierazpen eta batzeko askatasunak bermatu) eta langile eta kapitalisten arteko erlazio esplotatzailea abolitzea.

Bestalde ongizate ekonomikoa ere aldarrikatuko da; sistema erdi-feudaleko zergak kentzea eta, zerga eta prezio baxuagoak (ekonomikoki behin eta berriz agertzen den aldarrikapen bat da talde guztien aldetik), izan ere matxinada gehienak hauek eragindakoak izan ziren; 1905 –koa (gerra finantzatzeko zerga berriengatik), 1906 –koa (tranbiaren tarifen gorakada), 1908 –koa (zergen igoera), 1914 –koa (negozioen gaineko zergagatik) eta 1918 –koa (arrozaren prezio gorakada, gerra garaiak sortutako inflazioaren eraginez).

“Working-Class” deituriko gizataldeak politikan eragin izateko gaitasuna zuela erakutsi zuen eta aurrera eramandako hainbat greba eta matxinadek aldaketa bat ekarriko zutela argiago uzten zuen.

4.2.3 Taisho aroaren azken urteak

Garai honetan hainbat alderdi politiko agertu ziren japoniar politikan, hainbat ideologia ezberdin kontuan hartuz, ala nola anarkistak eta komunistak eta egoera ez zen egonkorra. 1925ean jadanik Japonian gizonezkoen sufragio unibertsala lortu zen (25 urtetik gora) eta emakumeen sufragio unibertsalari buruz hitz egiten hasi ziren alderdi politikoak.

Azkenik nahiz eta sufragio unibertsala eta alderdi politiko ezberdinek hauteskundeetarako joateko gaitasuna izan, gobernu parlamentarioa ez zen guztiz ezartzea lortu. Arrazoi ekonomikoari dagokionez Japoniari hasiera batean mendebaldeko 1929ko krisi ekonomikoak ez zion batere eragin. Ala ere gerora japoniar ekonomia ezta uharte bat izango eta eraginak jasaten hasiko da nahiz eta hauek ez izan beste herrialde askotan bezain sakonak.

Gainera, 1923ko irailaren 1eko Kantoko lurrikarak ez zion batere lagundu bere ekonomiari hiri garrantzitsu asko, ala nola Tokyo, guztiz birrinduta geratu zirelako²⁸. Guztira ehun eta hoge mila hildako egon ziren gutxi gora behera eta bi milioi pertsona inguru etxerik gabe kale gorrian geratu ziren. Izatezko lurrikarak barik ondoren eman ziren suteek eta tsunamiak eragin zituen hildako hauen gehienak. Gainera, kostu ekonomikoak izugarrikoak izan ziren; 1923 urtean Japoniako aurrekontu nazionalaren ia laukoitza suposatzen zuen. Bestalde, lurrikarak alde on bat ere izan zuela esan dezakegu; Japonia gogoetara bultzatu zuelako. Honen eraginez jendeak suntsipen hau aprobetxatuz herrialdea guztiz eraldatzeko aukera hobeto ikusi zuen eta japoniarrek horrelako hondamendiei aurre egiteko duten izaera erakutsi zioten munduari. Bestalde, Politikoki militarrek gero eta indar handiagoa hartzen joango dira Japonian eta honek arriskua ekarriko du japoniar demokraziarentzako.

5. SHOWA AROA JAPONIAN (1926-1989)²⁹

Taisho aroko enperadorearen heriotzarekin Japonia guztiz sartuko da Showa aroan, Japoniako etapa honen esanahia ondorengo izanik; bake ilustratuaren aroa. Garai honetan Japonia herrialde oso militarizatua bilakatuko da eta Txinarekin gerra batean sartuko da 1937 urtean, bestalde Bigarren Mundu Gerran ere sartuko da Ameriketako Estatu Batuen aurka. Gudaren ostean Japonia bere historiaren lehen aldiz okupatua izango da AEB –ko tropen eskutik eta gaur egungo den potentzia ekonomikora hurbiltzen hasiko da aplikatuko dituzten erreformekin eta honen ondorengo mirari ekonomikoak lagunduta.

5.1 Etapa militarista (1926-1945)

Garai hau baina zerbait arinago, 1924 urteko apirilaren 12an hain zuzen ere, AEB –ko gobernuak lege bat ateratzeko proposamena egin zuen, klausula baztertzailerikoa, non lege horrek hainbat kontrako sentimendu sortu zituen Japonian. Izan ere lege honek

²⁸ Clancey, G. (2006). *“Earthquake nation: The Cultural Politics of Japanese Seismicity”*. Berkeley: University of California Press. [2015-VIII-09an kontsultatua]
https://books.google.com.sg/books?id=m0eUSUtm0iMC&pg=PA212&hl=es&source=gbs_toc_r&cad=3#v=onepage&q&f=false

²⁹ Jansen B. M. (2000). *“The making of Modern Japan”*. Cambridge, Massachusetts: The Belknap Press Of Harvard University Press. [2015-VIII-09an konstultatua]
http://www.bakumatsu.ru/lib/Making_of_modern_Japan_Marius_B._Jansen.pdf

asiarrak ziren arraza guztien aurka egiten zuen, bigarren mailako gizakiak izango balira tratatuz. Ondorioz, japoniarrak hasi ziren pentsatzen honen arrazoi probableenatariko bat herrialde modura zuten botere militar txikia zela. Hau da, Japoniak beste herrialdeengatik errespetatua izatea nahi baldin bazuen bere ejertzittoa eta botere militarra handitu behar zuen.³⁰

Dena den Japonia jadanik nahiko herrialde militarista bilakatua zegoen (Meiji aroan eta Showa aroan militarren proportzioa oso altua izan zen Taisho garaiarekin alderatuta) eta botere militarraz gozatzen zuten pertsonak gizartean ondo ikusita zeuden. Armadari dagokionez esan behar da pila bat iskanbila egon zirela armada barruko fakzio ezberdinen artean boterea nork eskuratuko. Gehienbat, iskanbila hauek armadak nola garatu behar zuen moduarekiko zetorren, hain zuzen ere armada Europako eta mendebaldeko armaden sistema berdinez garatzearen eztabaidatik.

5.2 Berpizte ekonomikoa eta baliabideak

1930ean Japoniaren aldetik Txinaren aurka egondako erasoek politika erortzea ekarri zuten Japonian eta noski, armada barruko “vendetta” odoltsuek, ez zioten batere laguntzen, izan ere armada batuta egon beharrean bando ezberdinetan banatuta zeuden eta bando hauen artean iskanbila serioak ematen ziren. Gainera, gauzak zailtzeko iskanbila eta eraso hauek Depresio Handiaren garaian eman ziren. Depresioaren eraginez herrialde asko ekonomia nazionalistak garatzen hasi ziren, etxeko ekonomiak hobetzeko eta krisiaren eraginak urriagoak izateko helburuarekin.

Gauzak honela, zetaren merkatua gainbehera batean sartu zen eta honek japoniar herri asko kaltetu zituen, izan ere herri askok setaren merkatutik bizi ziren. Horrela, setaren esportazioak izugarri jaitsi ziren, ondorioz ekonomiak diru gutxiago zuen eta honek inportazioak murriztea ekarri zuen (diru faltagatik) eta azkenik Japonia ez zen gai lehengaiak inportatzeko. Mundu mailan, herrialdeen politika protekzionistek, merkataritza lehentasunak eta likidezia krisiak inbertsioa mundu mailan erortzea eragin zuen.

³⁰ Hirobe I. (2001), “*Japanese Pride, American Prejudice: Modifying the exclusion clause of the 1924 immigration act*”. Stanford, California: Stanford University Press. [2015-IX-04an kontsultatua] <https://books.google.es/books?id=aodXI-385HoC&printsec=frontcover&hl=es#v=onepage&q&f=false>

Munduan banka krisian zeudela ekonomia kontrolatzeko sistemak martxan jarri zituen; hala ere, Japoniak kartelak eta fusioak egitearen aldeko apustua egin zuen. Adibidez, burdinaren sektorearen %97,5a eta altzairuaren %51,5a fusio bat aurrera eraman zuen enpresa batek kontrolatzen zuen. Ondorioz, aurretik inoiz aipatutako Zaibatsuak gero eta botere handiagoa lortzen hasi ziren japoniar ekonomian.

Bestalde, garai honetan Takahashi finantza ministroak zenbait politika eta erreforma martxan jarri zituen. Horrela Takahashi ministroak ondorengoak egin zuen; **interes tasa baxuak ezarri, kanbio tasa baxua ezarri** eta lan publikoetarako **gobernuaren gastua handitu**. Erabaki hauek gizartearen ekonomiari lasaitasun bat eman zioten eta armamentuaren igoera handia eta azkarra baldintzatu zituen. Honela ba, gobernuak arantzelak igo zituen japoniar industria babesteko eta aurretik emandako kanbio tasaren jaitsierak inportazioak garestiago egin zituen inbertsio nazionala bultzatuz eta ondorengo barne industriari bultzada emanez; industria astuna eta kimikoa garatzen hasi ziren gehiago.

Takahashi Korekiyo 1913 urtean finantza ministro izendatu zuten eta Hara Takashi lehen ministroarekin lanean egon zen etengabe hau hil arte eta ondorioz Takahashi Japoniako hogeigarren lehen ministro bilakatuz 7 hilabetez 1921 eta 1922 bitartean. Hilabete gutxi egin zituen gobernuan ez zelako kontrolatzeko gai izan bere alderdiko mugimendu ezberdinak. Ondorioz, finantza ministro bezala jarraitu zuen bere heriotzera arte 1936 urtean, non militar erreboltaiek hil zuten bere politika antimilitarista zela eta. Takahashi hiltzeaz gain erreboltaiek gobernuko beste langile batzuk hiltzera ere deituta zeuden³¹.

Horrela, Takahashi ministroa 1936 urtean hil zutenerako bere erreforma eta politikek sekulako arrakasta izan zuten, enplegu totala eta ekonomiaren gorakada lortuz (44 orrialdeko 12 grafikoa, 1 puntua). Bestalde, Takahashiren ondoren etorri zirenek gastu militarra hainbeste handitu zuten non gobernuaren aurrekontu gehiena honetara bideratzen zen, ala ere honek ez zuen Txinako guda ekiditea lortu. Gainera, Txinarekin gudan aritzeak inflazioa haztea eragingo du japoniar ekonomian eta lehengaien inportazio kostuak berriz ere igoko dira; horregatik, enpresa buru asko lehengaien


³¹ Jansen B. M. (2000). *"The making of Modern Japan"*. 606. orria. Cambridge, Massachusetts: The Belknap Press Of Harvard University Press. [2015-VIII-09an konstultatua]
http://www.bakumatsu.ru/lib/Making_of_modern_Japan_Marius_B._Jansen.pdf

stocka handitzen hasiko dira etorkizunean gerta zitezkeen egoerei aurre egin ahal izateko.

Mundua momentu honetan monetetan oinarritutako blokeetan zatitu zen; alde batetik dolarraren blokea zegoen, bestetik libraren blokea, Yenaren blokea eta azkenik bloke batean ere ez zeuden herrialdeak, adibidez sobietar batasuna. Horregatik, Japoniak etorkizunerako abantaila bat ikusten du bloke batean ere ez dagoen herrialde horietan. Japoniaren helburua bere eragina eremu horretara zabaltzea izango da asiar ipar-ekialdeko blokea sortuz Japonia honen erdigune delarik. Honen atzean interes ekonomikoak zeuden; Manchuriako baliabideak (burdina, ikatza, aluminioa, urrea eta nekazal produktuak), Koreakoak (ikatza, burdina, aluminioa, magnesioa, kotoia eta lana) eta azkenik Ipar Txina (ikatza, kotoia, gatza, haragia eta lana). Hau etorkizunerako plan bat zen baina argi zegoen industria astunaren ekoizpenarekin jarraitzeko baliabideak zirela eta ondorioz inperialismoarekin jarraitzeko beharra.

5.2.1 Ekonomia planeatu baten planteamendua

Japoniar ekonomia ikasle askori deia egin zitzaien herrialdeari zerbitzuak eskaintzeko aukera emanez. Dei honen helburua japoniar ekonomiaren garapena ekartzea zen gehienbat Manchuria eta Tokyoren garapena. Bestalde, helburu hau zuten ikasle batzuk bota zituztenean, ikasle hauek talde bat osatu zuten “Showa Research Association (SRA)” Japoniaren ekonomiaren aldeko ekonomia ikerketak argitaratzen zituztelarik eta Japonia etorkizuneko egoera ezberdinetarako preparatzeko ikerketak eginez. Etorkizuneko egoera hauen beldurra kapitalismoa bizitzen zegoen desintegraziotik zetorren, Amerikako New Deal, Alemanian Nazional-sozialismoa, Italian korporatibismoa eta Sobietar batasunean komunismoa. Hau da, uneoro aldaketa asko ematen ziren munduan eta hauei aurre egiteko herrialdeak preparatuta egon behar zuen. Grafiko honetan ikerketen eragina ikusi daiteke; enpresek aurrera eramandako patente, marka eta diseinuak ikusi daitezkeelarik. 2 puntuan ikusi daiteke bigarren mundu gerraren eraginez hauek jaitsi egiten direla baina gerora ekonomiaren gorakadarekin batera hauek ere igo egiten dira.




Iturria: Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan. CHAPTER. 17: Applied and Registered Cases of Patents, etc. (F.Y.1884--1913, C.Y.1914--2004) [2015-VIII-19an kontsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>

Bestalde, japoniar gobernuak egitura ekonomiko eraginkor bat sortzeko asmoarekin Arisawa Hiromi adituari dei egin zion (Tokyoko unibertsitateko instruktore eta SRA elkarteko kideetarikoa bat). Horrela, Arisawa ekonomia kudeatzeko plan bat prestatzen hasiko da kapitala eta kudeaketa elkarrengandik banatzeko eta horrela esandako egonkortasuna bilatzeko. Bestalde, Arisawak argi zuen Japonia eta mendebaldeko potentzia baten arteko gerran irabazteko aukerak urriak zirela Japoniarentzat.

Nazioarteko politikari dagokionez, Japoniak Txinarekin guda bat hasi zuen 1937 urtean. Guda hau japoniar eta txinatar soldadu batzuen iskanbila sinple baten ostean hasi zen. Horrela, Japoniak Txina inbaditzen hasteko aitzaki bat aurkitu zuen eta urte baten buruan, hau da 1938 –rako, txinatar kostaldeko hiri garrantzitsuak Japoniaren eskuetan zeuden ondorengo 3. irudian ikusi dezakegun bezala. Hala ere, Japoniarentzat guda honek giza baliabide eta material askoren beharra izan zuen. Bestalde, guda praktikoki 1944 urtera arte bertan behera geratu zen, batzuetan iskanbilaren bat egonez baina inolako ekintza garrantzitsurik gabe.

4. IRUDIA: Japoniar inbasioa Txinan 1938



Iturria: Jansen B. M. (2000). “The making of Modern Japan”. 621.orria. Cambridge, Massachusetts: The Belknap Press Of Harvard University Press. [2015-VIII-09an kontsultatua]

5.3 “Pacific War” (1941-1945)

Guda guztien atzetik beti bezala herrialde batzuen **interes ekonomikoak** egoten dira eta Japoniak beste askok bezala bere interes propioak zituen. Japoniaren ekonomia erritmo azkar batean hazten zegoen, aurretik esan bezala, eta hau aurrera eramanez ahal izateko bere muga naturalen barruan ez zituen baliabideen falta zuen Japoniak. Garai honetan gainera, industria astuna aurrera eramateko Japoniak petrolioaren beharra zuenez begirada Asiako hegoaldean jarri zuen, Frantziako, Estatu Batuetako eta beste zenbait herrialdeen kolonietan.

Baina arazo bat zegoen Asia hegoaldean inbaditzerako orduan; AEB. Japonia kontziente zen AEBk itsasoz aurrera eramandako hornidura ibilbideak oztopatuko zizkiola Asia hegoaldean inbaditzen bazuen. Soluzio bakarra planteatu zitzaizen aurrean **Yamamoto Isorokurena**; AEB –ekin gerran sartu behar zen. Jadanik Japonia eta Estatu Batuen arteko erlazioa ez zen onena eta elkarrizketak egiten zebiltzan uneoro Asiako imperialismoa bertan behera gelditzeko, beraz Japoniak ikusi zuen sorpresaz erasotzeko

bere alde jokatu zezakeela. Horrela, Yamamotok bere AEB –ko ezagutzetaz baliaturik, Pearl Harbour itsas basea sorpresaz atakatzearabaki zuen, bere Pazifikoko itsas flota bertan behera desagerrarazteko, naiz eta, japoniarrek ez jakin flota guztia ez zegoela bertan.

Yamamoto Isoroku (1884-1943) japoniar itsas-armadako almirante eta komandantea izateaz gain Pearl Harbourreko erasoaren aita da, izan ere Harvard unibertsitatean ikasi zuenez AEBi buruz asko zekien. Yamamotok hasiera batean plan honen berri eman zuenean japoniar agintarien aurrean, hauek uko egin zioten planari arriskutsuegia zirudielako, beraz Yamamotok esan zien agintariei bere plana onartzen ez bazen berak bere postuari uko egingo ziola eta ondorioz Japonia bere agintari militar onenatariko bat gabe geratuko litzateke. Beraz, agintariak ez zuten beste aukerarik izan. Hala ere Yamamotok bazekien AEB ez zela hain laster errendituko eta guda gogor baten aurrean zeudela bazekien³². Ondorioz, japoniar agintariak Yamamotoren plana onartu zuten jadanik ezaguna diren gertakariei hasiera emanez. Yamamoto 1943an hil zuten estatu batuarrek ikusirik bere ondorengoak ez zirela gai izango bere proiektuarekin eta ikuspenarekin jarraitzeko³³.

Horrela, 1941eko abenduaren 7an, Japoniar hegazkinek Pearl Harbour eraso zuten sekulako kalteak eraginez AEBko armadari. Ondorioz, AEBk gerra deklaratu zion Japoniari abenduaren 8an eta ondorioz, Italia eta Alemaniak gerra deklaratu zioten Estatu Batuei, honen sarrera eraginez gerran modu aktibo batean. Ez gara gudaren eboluzioan sartuko, zuzenean guri interesatzen zaigun atalera joango gara, gerra amaieraren urtera, hau da 1945era. Urte honetako apirilera Italia errenditu egin zen aliatuen taldearen aurrean, Alemaniaren gainbehera ziurra zen eta estatu batuarrek japoniar uharte printzipaletara iristen zeuden, beraz gerra sententziatuta zegoen. Udarako, Japonia guztiz suntsituta egoteaz gain baliabiderik gabe zegoen eta Aliatuen taldeak Txinarekin batera gutun baten bidez errendizioari edo suntsipen osora dei egin zion Japoniari. Japoniak honi uko egin zion. Ondorioz, abuztuaren 6 eta 9an historian

³² Hotta, E. (2014). Japón 1941 El camino a la infamia: Pearl Harbour. Barcelons: Galaxia Gutenberg, S.L. [2015eko urriaren 1ean kontsultatua]
https://alformaetxea.files.wordpress.com/2015/07/japon_1941_web.pdf

³³ Yamamoto Isoroku, Japan's mastermind of the Pearl Harbor attack, is born. (2015). 2015eko irailaren 30ean kontsultatua, Canal History: <http://www.history.com/this-day-in-history/yamamoto-isoroku-japans-mastermind-of-the-pearl-harbor-attack-is-born>


lehen aldiz bi hirik eraso nuklearra jasan zuten Hiroshima eta Nagasakin hurrenez hurren. Horrela, Japoniak Postdamen aliatuek sinatutako akordioa onartu zuen gerrari amaiera emanez eta Japoniaren okupazioari hasiera emanez. Akordio horretan Japoniak Asiako herrialdeak askatu behar zituela adierazten zen beste gauza batzuen artean.

5.4 Japoniaren okupazioa (1945-1952)

Estatu Batuek Japonia okupatu zuten garai honetan Japoniak erreforma sakonak aurrera eramanez behar zituen, politikoki zein ekonomikoki sakonak ziren erreformak baldin eta berriz ere herrialde independente bat izan nahi bazuen. Horretarako lehen pausua Japoniarentzat politikaren erreforma zen, konstituzio berria zentratu batez ere. Ondorioz, aliatuen kontrolarekin japoniar konstituzio garaikidea sinatu zen, 9.klausula barne non Japoniak hemendik aurrera gerrari eta armada bat izateari uko egingo dion (AEB -k eskatuko dio aurrerago armada sortzeko sobietar komunismoari oztopo bat ezartzeko).

- **Liberalizazioa:** Aliatuek Zaibatsuak galaraztea eskatuko dute hauek Bigarren Mundu Gerran izandako paper finantzarioagatik eta lehia librearen oztopo izateagatik, baina japoniarrek eskatuta eta beraien ekonomiarentzat duten garrantzia justifikatuz mantentzen utzi zituzten modu batean, Zaibatsuak kendu eta Keiretsuak onartuz. Keiretsuak egia esan Zaibatsuekin erlazionatuta zeuden; egitura monopolistiko eta egitura piramidal berbera zuten, burua normalean familia bat izanik [Nishijima, S. (2009)]. Bestalde, 1947-1949 bitartean japoniar lurren %38 erosi dute aliatuek, ondoren nekazariei prezio baxuetan saltzeko eta horrela berdintasuna bultzatzeko (1950erako 3 milioi nekazarik lurra erosi zituzten).
- **Demokratizazioa:** 1946ko konstituzioa osatu zen Aliatuek emandako eredu bat jarraituz. Dokumentu honetan, oinarriko askatasunak aldarrikatzeaz gain, askatasun zibilak ere onartu ziren. Bestalde, emakumeen sufragio unibertsala onartu zen, noblezia abolitu eta Enperadorea irudi batean soilik bilakatu zen. 5. grafikoan ikusi daitekeen bezala eroldaren gorakadak sekulakoak dira sufragio unibertsal biak onartzean, batez ere emakumeena ematean.
- **Hezkuntza:** Ameriketako hezkuntza sistemaren estiloko lehen eta bigarren mailako ereduak ezarri ziren.

Gauzak horrela, hau da, erreformak behin martxan jarrita Aliatuek okupazioarekin bukatu zuten 1951ko irailaren 8an eta 1952an Japonia berriz ere herrialde independente eta subirano bilakatu zen.



Iturria: Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan.CHAPTER.27 Allotted Number, Candidates, Eligible Voters as of Election Day, Voters and Voting Percentages of Elections for the House of Representatives (1890--2005) [2015-VIII-20 an kontsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>

5.5 “Planning for Recovery”

Japoniar ekonomia egoera desesperagarri batean aurkitzen zen errendizioaren eta okupazioaren ostean; inflazioa, gerra garaian zerbait kontrolatzea lortu zena, hazi egin zen berriz ere modu bortitz batean. Adibidez, handizkari produktuen prezioak 1946 urtean, 1934-36 bitarteko prezioak baino 16 aldiz altuagoak ziren eta 1951 urtean 240 aldiz altuagoak.

Ondorioz, kaos ekonomikoa eta soziala bizitzen ari zen Japonia, bere moneta eta gobernuaren bonuen eskaintza gero eta handiagoa zen eta hauen balioak pila bat jaitzi ziren. Hiriak guztiz hautsita zeuden eta elikagaiei dagokionez itsasoan gehiegizko arrantza aurrera eramaten ari ziren. Bestalde, meategiek ez zuten ezer ere ekoizten zeren ordura arte lan arriskutsu horietarako kolonizatutako herrialdeetako esklaboak erabiltzen zituzten japoniarrek, hau da kolonietatik beraien borondatearen aurka ekarritako langileak erabiltzen zituzten lan horietarako. Ondorioz, jadanik langile edo esklabo hauek ez zituztenez, Japonia ez zen bere baliabide mineralak ustiatzeko gai.

Beraz, hau soluzionatzeko eta berriz ere ekoizpenarekin hasteko beharrezkoa zen ekonomia planifikatzea. Horretarako aurretik aipatutako “Showa Research Association”

elkartera jo zuen gobernuak. Izan ere, talde honen erronkak ekonomia aktibatzeke planak ezartzea eta nazio industrialaren politikak aurrera eramatea ziren. Bestalde Yoshida presidentea ez zegoen guztiz ados ekonomia planifikatzearekin, kapitalismoaren esentzia deuseztatzen zuelako. Baina, planifikazioa derrigorrezkoa zen, Japoniak azkar hazi behar zuelako berriz ere.

Postdameko akordioan aliatuek onartu zuten Japoniak 1936 inguruan zuen industria mailara bueltatzeko bere industria zati baten suntsipena aurrera eraman behar zuela. Baina aliatuen beste klausuletarike batek zioen “onartua izango da japoniar ekonomiarentzat ezinbestekoak diren industriak mantentzea eta zabaltzea”, beraz ikusirik Japonia egoera oso txarrean zegoela erabaki zuten industria hori beharrezkoa zela Japoniarentzat eta ondorioz, laguntza eta babesa ematearen alde agertu ziren, batez ere AEB. Horretarako adibidez, Estatu Batuek ekipo teknologiko berriak egoera desabantailatsuan zeuden herrialdeetara eraman zituzten, Japonia hauen artean egonik.

Bestalde, bigarren mundu gerra bukatu bezain pronto AEBk Marshall Plana aurrera eraman zuen Europa mendebaldeko herrialdeetan. Herrialde hauek gerraren eraginez guztiz suntsituta zeuden eta ondorioz 1948ko apiriletik aurrera plan hau martxan jarri zen horretarako garaiko 13.000 milioi dolarrez baliaturik. AEB –ren helburua Europa garaikide bat lortzeaz aparte, komunismoaren hedapen posiblea oztopatzea zen. Hau da, kapitalismoa garaturik Europan, ideia komunistek ez lukete tokirik izango europar gizartean. Horregatik, Japoniari laguntzea ere garrantzitsua iruditzen zitzaion AEB –ri batez ere komunismoa ez hedatu ahal izateko beste herrialde batzuetara³⁴.

Bestalde, argi zegoen ekonomiaren eta ekoizpenaren suspertzea lortzeko ezinbestekoa zela erabakietan eta erreformetan lehentasunak ezartzea, izan ere fisikoki ezin zen dena martxan jarri, ez zegoen lan eskurik. Bestalde, energia arazo handi bat izan zen, izan ere Japoniak ikatza besterik ez zuen baliabide energetiko bezala eta ikatz hau esklaboen bidez lortzen zuen ordura arte, beraz, ez zen gai energia nahikoa sortzeko, ondorioz produkzioa oso urria zen, diru gutxi sortuz eta ikatza ateratzeko sistema eraginkorragoak ezartzea zailduz.

³⁴ González Huerta, B., (n.d.). Cooperación económica: del Plan Marshall al G-20 (1944-2012). *Mediterráneo Económico* 22 (125-138). [2015-X-01ean kontsultatua]
<http://www.publicacionescajamar.es/pdf/publicaciones-periodicas/mediterraneo-economico/22/22-341.pdf>


AEB orain arte ez bezala Japonia babesteko politikak aplikatu zituen eta kooperazioaren apustua egin zuen Japonia berriz ere potentzia batean bilakatzeko. Horretarako beste zenbait erabakien artean Joseph M. Dodge enpresaburu eta bankeroa aukeratu zuen gobernu estatu batuarrek Japonian erreforma berriak ezartzen laguntzeko. Dodgen erreformak honetan oinarritzen ziren, Japoniak autosufizientzia lortu zezakeela nazioarteko merkataritza burutuz eta kanbio tasa lehiakorragoak ezarrita. Hala ere, hauek ez zuten funtzionatu.

Bestalde, guda berri baten hasierak Japoniak behar zuen bultzada eman zion; Koreako gudak. Ipar Koreak Hegoaldeko Korea inbaditzean Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Japonia herrialde hornitzaile modura erabili zuen gerrarako; honek dibisen gorakada izugarria ekarri zuen eta Dodgen erreformak finantzatzea ahalbidetu zion Japoniari. Gauzak horrela Japoniaren ekonomia modu azkar batean hazten hasi zen eta neurri handi batean AEBk Japoniarekiko izandako jarrera arduratsuari esker izan zen, teknologiaz hornitu zuelako. Ideia honek laburbildu dezake Japoniaren mirari ekonomikoa.

6. JAPONIA SUPERPOTENTZIA³⁵


Japoniak superpotentzia batean bilakatzeko lortu zuen eta gainera inolako inperialismorik garatu gabe munduko bigarren ekonomia bilakatzera iritsi zen, japoniar gobernuak nazioarteko egitura ekonomikora egokitzen jakin zuelako. Bestalde, AEB –k behin eta berriz pila bat lagundu zion japoniar ekonomiari komunismoaren aurka egiteagatik, horregatik estatu batuar merkatura sartzeko izugarritzko abantailak eskaini zizkion. Bestalde, Japoniak aldaketa teknologiko eta zientifiko asko burutu zituen mundu mailako teknologia ekoizle garrantzitsuena bilakatzeko. Hau inork ez zuen uste posible izango zenik Japonia bezalako ekonomia baten aldetik eta gutxiago pentsatzen zuten Japonia konpetentzia ona izango zenik.

³⁵ Jansen B. M. (2000). *“The making of Modern Japan”*. Cambridge, Massachusetts: The Belknap Press Of Harvard University Press. [2015-VIII-09an konstultatua]
http://www.bakumatsu.ru/lib/Making_of_modern_Japan_Marius_B._Jansen.pdf



Iturria: Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan [2015-VIII-20 an kontsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>



6 eta 7 grafikoetan ikusi dezakegu lehenik eta behin Japoniaren langileen izaerak nolako aldaketa izan zuen industrializazioaren eragina zela eta. Daturik esanguratsuen edo ikusgarriena inongo dudarik gabe nekazaritzako eta lehen sektoreko langileen proportzioa da; herrialdeko langileen %39a izatetik %8ra pasatzen direlarik, hau da langile ugarienen talde izatetik laugarren talde bilakatzen da. Bestalde, urte batetik bestera talde batzuen proportzioa lehen txikia zen arren, oraindik eta txikiagoa bilakatzen da; meategiko langileen kasuan, geroago ikusiko dugun bezala industria honek izandako atzerapenaren eraginez batez ere.



Iturria: Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan. CHAPTER 6, Corporations by Industry (1950--2003). [2015-VIII-20 an kontsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>

Bestalde, 8 eta 9 grafikoetan modu simple batean justifikatzen da langile izaeraren aldaketa hori, nekazaritza sektoreak ekonomiaren herena okupatuzetik %7a okupatzera pasatzen da, guztizko atzerapena ekarriz nekazaritzarentzat 10 eta 11 grafikoetan ikusi


daiteken moduan, arrozaren ekoizpena adibidez gero eta txikiagoa izateaz gain hauen lur eremuak gero eta gutxiago dira beste nekazal eremuen antzera. Gainera lehen aipatutako meategiena argi ikusi dezakegu hemen, izan ere grafikotik desagertu egiten da sektore hau, proportzioa pila bat txikitzen delako alegia. Bestalde, hazkunde nabaria jasaten duten sektoreak, zerbitzuak, manufaktura eta handizkari eta antzekoen sektoreak dira; azken batean orain arte aplikatu zituzten erreformek hauen agerpena edo hazkundera bultzatu zutelako



Iturria: Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan. CHAPTER 7 Area of Cultivated Land (1904--2004) eta Planted Area and Agricultural Production (1878--2004) [2015-VIII-20 an kontsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>

Japonian zehar merkataritxikiei babes handiagoa ematen hasi zen gobernuak denda handien aurrean hauek aukera gehiago izateko; horretarako, denda handien ereduak alde batera utzi zuen eta denden tamaina mugatu zuten azalera zehatz batetik aurrerago denda ez egoteko.

Bestalde, Estatu Batuek oraindik Japoniari sekulako laguntza ematen jarraitzen zuten eta horren erakusle 1970ean amerikarrek Japoniara bidali zuten bazkide komertzialen misioa edo ordezkariak dugu; japoniar merkatura modu errazago batean sartzea ahalbidetzen ziolarik (13 grafikoa). Gauzak horrela, Japoniak izandako hazkundera sekulakoa izan zen modu konstante batean gainera eta gobernuak soberakinak politika sozialetara bideratu ahal izan zituen.



Iturria: Maddison, A. (n.d.): "World Population, GDP and Per Capita DGP, 1-2003 AD". Portal for Historical Statistics: Japan. <http://www.historicalstatistics.org/> [2015-VIII-09an kontsultatua]


Bestalde, gobernuak ikusirik bere ekonomiak bat-batean izandako sekulako hazkundera industria elektrikoa eta kimikoa garatu eta modernizatzeko politikak martxan jarri zituen. Horregatik, orain arte erabilitako ikatza alde batera uzten hasi ziren eta petrolioak inportatzen hasi ziren industriari bultzada ematen jarraitzeko. Gainera, sekulako hazkunde azkar honek munduko beste herrialde askoren atentzioa ekarri zuen eta eredu bilakatu zen hainbat asiar herrialdeentzat; ala nola, H. Korearentzat, Taiwanentzat, Hong Kong –entzat eta Singapurrentzat. Horrela ba, 1980an japoniar mirariari, asiar herrialdeen mirariak jarraitu zion. Japoniaren ereduak ondorengo honetan oinarritzen zen; bertako jendea herrialde atzerritarretara bidaltzen zen bertako ezagutzak bereganatzeko eta ondoren herrialdera ezagutza horiekin bueltatzeko. Azken batean Japoniaren aurrerapena ez zen oinarritzen beraien ikerketa propioengandik, baizik eta atzerritarren

ikerketak bereganatuz. Ondorioz, aurretik aipatu ditugun herrialdeak ere antzerako gauzak egiten hasiko dira beraien herrialdearen garapena lortzeko.

Garai honetan bultzada edo hazkunderik handiena izan zuen industria automobilgintza izan zen. Gainera, orain arte adibidez Toyota automobil ekoizlea AEBn zegoen merkatuari dagokionez eta Koreako gerraren berri izan zuten momentu berean Japoniara egin zuten buelta, merkatutzat Japonia izanik, izan ere denok dakigun bezala gerra garaiek aukera berriak ekartzen dituzte enpresentzat. Gainera, gerora ekialde hurbileko ezegonkortasunak gasolinaren hornikuntza arriskuan jartzen zuen bitartean, japoniar automobilgintzak hazkundera izan zuen AEBn batez ere autoen kontsumo txikiak erakargarriago egiten zituztelako. Gehitzeko esan, automobilgintzaren gorakadak inguruan beste industria batzuk sortu zituela, gehienbat piezetara dedikatzen ziren enpresak, honek altzairuaren eskaria igo zuen, gurpilena, kristalena eta beste hainbat industria satelite. Honek guztiak eragin zuen Japonian teknologia maila oso garatuko produktuak ekoizten hasia.

Ondoren irudi honetan eta ondorengo azalpenean Toyota eredu ezagunari buruzko azalpen labur bat irakurri ahal izango dugu³⁶.

5. IRUDIA: Toyota eredu




³⁶ Toledano, A., Mañes, N. y Julián, S. (2009). <<Las claves del éxito de Toyota>>. Más que un conjunto de herramientas y técnicas. Cuadernos de Gestión Vol. 9. Nº 2 (Año 2009), pp. 111-122.

Iturria: Toledano, A., Mañes, N. y Julián, S. (2009). <<Las claves del éxito de Toyota>>. Más que un conjunto de herramientas y técnicas. Cuadernos de Gestión Vol. 9. Nº 2 (Año 2009), pp. 111-122.

- **Arazoen zuzenketa (etengabeko hobekuntza eta ezagutza):** erabakiak hartzea oso garrantzitsua da horrelako enpresa batez ere adostasunarekin hartzea. Erabaki hartze hau geldoa izan behar da dena ongi zehazteko eta begiratzeko. Bestalde, erabakiak hartzeaz gain erabaki hauetatik ikasi behar da eta uneoro gogoeta jarrera garatu etengabe hobetzen aritzeko. Horrela aurkitzen diren arazo horiek konpontzeko erabakiak hartu eta enpresan estandarizatzea besterik ez dago.
- **Jendea eta bazkideak (errespetua, erronka berriak eta etengabeko aurrerakuntza):** Langileak motibatuko eta bultzatuko dituen liderrak aukeratzen ditu Toyotak barne promozioa erabiliz, horrela liderrek ezagutza osoa eta esperientzia dute barruko funtzionamenduarekiko .
- **Prozesua (Xahutzeak desagerrarazi):** Uneoroko prozesu bat sortzen du sistemako errakuntzak argi eta garbi ikusi daitezen. Hau da, emari ideala piezaz pieza egitean datza inbentarioa murrizteko eta baita bezeroak eskatzen duen erritmo berarekin; horrela, gehiegizko xahutzeekin amaitzen da. Bestalde PULL (tiratu) sistemek inbentario gutxitze honetan pila bat lagundu dezakete eta langileen inplikazioak produktuen kalitate maila altua bermatzen du.
- **Filosofia (epe luzerako pentsamendua):** Toyotak epe luzerako proiektu bat aurkezten du, non bere erabakiak epe luzarokotasunaren ideiarekin garatzen diren, batzuetan epe laburreko emaitzak kontuan izan gabe. Gainera, Toyotaren misioa ongizatea bilatzea da; bai inguruarena, bai erakundearen barruko guztien eta baita Toyota osoaren hazkundera ere. Toyotak beste enpresetan ez bezala salmenten jaitsierarekin ez ditu langileak kaleratzen; hauek beste lan batzuetarako erabiltzen ditu guztien ongizateari lagunduz eta potentzial hau bere alde erabiliz.

Automobilgintzaren gorakada honek Japoniaren esportazioak handitzean izan zuen eragina 13 grafikoan ikusi daitekeen moduan eta baita esportazioen izaeran ere. Hala ere, Japoniak arazo bat zuen lehengaiekin, batez ere, energia elektrikoarekiko dependentzia handia zuen bere industria astuna aurrera eramateko. Momentu honetan

Japonia bere ekonomiaren gehiegizko “berotze” bat jasaten hasi zen, etorkizunean arazoak sortu zitzakeenak.



Iturria: Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan. CHAPTER. 18 Unit Value Index of Foreign Trade (1960--2004). [2015-VIII-20 an kontsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>

Horregatik, gobernuak mende amaieran ekonomiaren hazkundera kitzikatzeko gastu publikoa eta azpiegituren garapena erabili zuen.

7. LANAREN ONDORIOAK

Behin Japoniari buruzko historia eta ekintza guztiei amaiera emanik, ordua iritsi da japoniar mirari ekonomiko hori edo industrializazio prozesu hori nola eta zergatik eman den ondorioztatzeko. Bestalde ondorio hauetan lanean agertutako beste edozein ideia posibleei ere erantzuna emango diegu.

Ekonomia batek bere ekonomiaren eta industriaren garapena izateko ondorioztatu dezakegu herrialdeak ezaugarri edo faktore batzuk betetzen baditu bere ekonomiaren hazkundera hori egonkorragoa eta epe luzeagokorako hazkundera izango dela. Horregatik Japonian urteetan zehar zein aldaketa eman ziren ikusiko ditugu.

- ✓ Gizarte mailan eta herrialde mailan eman ziren aldaketen inguruan hau ikusi da lanean:

Japoniar industrializazioa aurrera eramateko lehenik eta behin Japoniak bere herrialde eta gizarte barnean zituen arazoak konpontzeko beharra zuen. Horrela Tokugawa aroan herrialdea daimioetan antolatzeak eta leialtasun akordioak aurrera eramateak herrialde osoko jauntxoekin, gizarteari nolabaiteko egoera kontrolagarria eta baketsua eman zion urteetan zehar, nolabaiteko herrialde batasun bat lortuz.

Ondoren Meiji aroan Japoniak bere herritarrei eskubide ezberdinak ematearen beharra ikusi zuen, horrela gobernuaren aurka agertu zitezkeen herritarrak zein familiak erregimenarekin gustura egoteko. Gainera, Japoniak ordura arte estamentuetan antolatzen zen gizarte sistema hori deuseztatu zuen Samuraien eta jauntxoen eskubideekin bukatuz. Eskubide horiekin bukatu ostean, gobernuak Juramentu gutuna eta ondorengo konstituzioa atera zituen nolabaiteko erregimen askeago bat sortuz eta egonkortasun politikoa emanez herrialdeari. .

Taisho garaian demokrazia iristen hasi zen Japoniara, bizitako mugimendu sozialek eta arazoek, Meiji garaiko iraultzarekin hasitako aldaketak gehiago aldarrikatzea lortu zuten. Baina benetako demokraziaren hasiera AEB –ko okupazioarekin batera etorri zen, Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean.

✓ Ekonomikoki honako egoerak eman ziren:

Japoniaren hazkunde ekonomikoa ez zen hasi bigarren mundu gerra bukatu ostean askok uste duten bezala. Jadanik Japoniak Meiji arotik bere lanak ondo egina zetorren eta honek baliatu zion bigarren mundu gerraren ostean garai hartan hasita zegoen hazkundearen garapena areagotzea. Meiji garaian ekintzarik garrantzitsuenetariko bat aurrera eraman zen, herrialde batek industrializatzeko beharrezkoa duen ekintza; **subsistentziako nekazaritza batetik nekazaritza komertzial batetara pasatzea.**

Isolamenduaren amaierak Japoniaren merkatuan sartzeko grina zabaldu zuen atzerritar merkatarien artean, ondorioz honek sekulako gorakada jasan zuen. Burgesiak **diru soberakin handiak** izatea lortuz, hauek **inbertsiora bideratu** zituzten.

Atzerritar **ezagutzak bereganatu eta teknologiak eta teknikak kopiatzeak** ekonomiaren hazkunde azkarra bermatu zuen denbora, ikerketarako denbora aurreztuz.

Inperialismoaren ondorioz, Japonian hain urriak ziren **baliabideak (baliabide naturalak zein esku lana) eskuratzeak** herrialde ezberdinetan, ekonomiaren industrializazio azkarra eta handia eman zen, batez ere industria astunean.

Okupazioaren ostean AEBk oso babesle agertu ziren Japoniarekin eta teknologia berriez hornitzeaz gain uneoroko babes eta laguntza tekniko eta finantzarioa eskaini zion errekupeazioan, hau da **nazioarteko laguntza izan zuen** AEB ren eskutik.

Okupazioaren ostean baita, legeek zioten bezala Japoniak ezin zuen ejertzito edo armadarik izan, ondorioz, ejertzito eta erakunde militarretan ez zuenez inbertitu behar, Japoniak sekulako **diru kantitate horiek enpresen garapenerako eta inbertsiorako bideratzen** zituen.

Koreako gudak sekulako bultzada suposatu zuen Japoniar ekonomiarentzat izan ere, guda frenteatatik hurbilen zegoen herrialde garatuena zelako. Ondorioz, produktu berezien eskaria izugarri hasi zen estatu batuarrei esker. (ondoren, Vietnameko gudan berdin).

AEB-k aplikatutako **merkataritza politikek** japoniar produktuak amerikar merkatuan oso azkar sartzea ahalbidetu zuen, batez ere japoniar autoak, esan bezala eskari handia jasan zuten 1973ko petrolioaren krisi garaian. Gainera, Japoniak produktu teknologikoen ekoizpenean zuen sekulako gaitasunak zituen.

Gobernuko agentziek antolatzeke erraztasun handia zuten, eta oso efizienteak ziren beraien lanetan. Gainera, Japoniako **enpresa handien eta gobernuko agentzien artean harreman oso estuak** zeuden, ekonomiari bultzada handia emanaz. Adibidez, Nazioarteko Merkataritza eta Industria Ministerioak industria garatzeko hainbat ekintza eramaten zituen aurrera.

Langileen eta kudeatzaile eta zuzendarien arteko **etengabeko kooperazioa** garatzen zen eta da, japoniar enpresen arrakasta ekarriz. Horrez gain, giza kapitala oso langilea eta inplikatu aurkitu dezakegu, enpresaren ongizatea bere ongizate zela ikusirik. Bestalde,

enpresetan **etengabeko hobekuntza** garatzen zen Toyota ereduan aurretik azalduta daukagun bezala.

Emandako enpresa elkarketak edo Keiretsuek, enpresa eta talde ezberdinen artean **teknologia eta teknika berriak partekatzea** ekarri zuen denen ongizateari lagunduz, **estrategia esfortzuak koordinatzea lortuz eta baliabideak partekatuz**.

Beraz argi eta garbi ikus daiteke japoniar mirari ekonomikoa ez dela azken urteetan eman, hau da, urteetan zehar japoniar gizarteak eta gobernuak eginiko ahaleginen ostean, japoniar ekonomiak sekulako hazkunde eta gorakada bortitza izan zuen, mundu mailako ekonomiarik garrantzitsuenetariko bat bilakatuz. Gainera ikusi dugun bezala, Japonian hainbat faktore eman behar izan dira eta eman dira bere garapenaren sekretu gisa. Bestalde, ni baino adituago den batek behar bada ondorio gehiago aterako lituzke lan honetatik, baina uste dut Japoniaren industrializazioari buruz planteatutako lan honetan ondorio nagusiak identifikatzeko gai izan naizela.

8. BIBLIOGRAFIA

- Bassion, J.P.; Broadberry, S.; Fukao, K.; Gupta, B. eta Takashima, M. (2015): "*Japan and the great divergence, 725-1874*", Working paper series, University of Warwick, 230 zkia, 28. orrialdea, 4. Taula eta 2. Taula.
- Bonifazi, M. (2009). "*Japón: Revolución, occidentalización y milagro económico*" [2015-V-30ean kontsultatua], Universidad de Málaga, Observatorio Iberoamericano de la Economía y la Sociedad del Japón: <http://www.eumed.net/rev/japon/05/mb.htm>
- Clancey, G. (2006). "*Earthquake nation: The Cultural Politics of Japanese Seismicity*". Berkeley: University of California Press. [2015-VIII-09an kontsultatua] https://books.google.com.sg/books?id=m0eUSUtm0iMC&pg=PA212&hl=es&source=gs_toc_r&cad=3#v=onepage&q&f=false
- Craft, S. G. (1963). "*V. K. WELLINGTON KOO and the Emergence of Modern China*". Kentucky: The University Press of Kentucky. [2015-VII-22an kontsultatua] <https://books.google.de/books?id=y70eBgAAQBAJ&pg=PA264&lpg=PA264&dq=Great+Britain+and+the+Twenty-One+Demands+of+1915&source=bl&ots=vNOxcqXu&sig=PcGQGG8TjfwPHDLIC8Yz4PmtCck&hl=es&sa=X&ved=0CEcQ6AEwBWoVChMluJaHjKK4xwIVRNsaCh1aDQt3#v=onepage&q=Great%20Britain%20and%20the%20Twenty-One%20Demands%20of%201915&f=false>.
- Cullen, L. M. (2003): "*A History of Japan, 1582-1941; Internal and External Worlds*". Cambridge: Cambridge University Press.

- Editorial Ángel Porrúa, S.A [2015-VI-6an konsultatua] <http://biblio.juridicas.unam.mx/libros/libro.htm?l=550>
- Fung, A. (1996). “*Testing the Self-Strengthening: The chinese Army in the Sino-Japanese War of 1894-1895*”. (pp. 1007-1031) Britain: Cambridge University Press. http://www.jstor.org/stable/312957?&seq=1#page_scan_tab_contents [2015-VII-06an konsultatua]
- Gómez, J. L. (2010). *Japón: la Restauración Meiji (1850-1890)*. [2015-VI-6an konsultatua] <http://jls.com.mx/articulos/historia/japon-la-restauracion-meiji-1850-1890/>
- González Huerta, B., (n.d.). Cooperación económica: del Ian Marshall al G-20 (1944-2012). *Mediterráneo Económico* 22 (125-138). [2015-X-01ean konsultatua] <http://www.publicacionescajamar.es/pdf/publicaciones-periodicas/mediterraneo-economico/22/22-341.pdf>
- Goodman, G.K. (2000) “*Japan and the Dutch 1600-1853*”. Curzon Press: Richmond. [2015-X-02an konsultatua] https://books.google.es/books?id=SzPs4rb2TN0C&pg=PA49&lpg=PA49&dq=shogun+yoshimune&source=bl&ots=uR3Sm_8fqZ&sig=AiOWCLqFjW2DvtYxEOiIBzSJJ_k&hl=es&sa=X&ved=0CFQQ6AEwBzgKahUKEwjc9ezGqovIAhXQLogKHbYZB6E#v=onepage&q=shogun%20yoshimune&f=false
- Gordon, A. (1952). “*Labor and Imperial Democracy in Prewar Japan*”. Oxford: University of California press. [2015-VIII-5ean konsultatua] https://books.google.de/books?id=lzKRQII7D5oC&pg=PA6&lpg=PA6&dq=taisho+democracy+free+book&source=bl&ots=dtFw6j7tvI&sig=37xvY0jHvTKXAfKk7wR4aKxK21s&hl=es&sa=X&ved=0CEYQ6AEwBWoVChMI-X_x_S3xwIVC9YaCh1ulgFz#v=onepage&q=taisho%20democracy%20free%20book&f=false
- Hanley, S. & Yakamura, K. (1977): “*Economic and Demographic Change in Preindustrial Japan, 1600-1868*”. Princeton: Princeton Legacy Library. [2015-V-30ean konsultatua] (https://books.google.de/books?hl=es&lr=&id=1Hh9BgAAQBAJ&oi=fnd&pg=PP1&dq=Economic+and+Demographic+Change+in+Preindustrial+Japan,+1600-1868&ots=WEScg_H5iU&sig=ap6-9wqgSL8ZQDgPse4graBF3IU#v=onepage&q=Economic%20and%20Demographic%20Change%20in%20Preindustrial%20Japan%2C%201600-1868&f=false)
- Hirobe I. (2001), “Japanese Pride, American Prejudice: Modifying the exclusion clause of the 1924 immigration act”. Stanford, California: Stanford University Press. [2015-IX-04an konsultatua]. <https://books.google.es/books?id=aodXI-385HoC&printsec=frontcover&hl=es#v=onepage&q&f=false>
- Jansen B. M. (2000). “*The making of Modern Japan*”. Cambridge, Massachusetts: The Belknap Press Of Harvard University Press. [2015-VIII-09an konsultatua] http://www.bakumatsu.ru/lib/Making_of_modern_Japan_Marius_B._Jansen.pdf
- “*Las reformas de Japón a mediados del siglo XIX*”. (2010). [2015-VI-16an konsultatua], <http://sobrehistoria.com/las-reformas-de-japon-a-mediados-del-siglo-xix/#>

- Maddison, A. (n.d.): "World Population, GDP and Per Capita DGP, 1-2003 AD". Portal for Historical Statistics: Japan. <http://www.historicalstatistics.org/> [2015-VI-25an kotsultatua]
- Maddison, A. (2001). *The world economy: a millennial perspective*, Chapter 1 The Contours of World Development. Paris: OECD.
- Margadant, G. F. (1984). "Evolución del Derecho Japonés", Capítulo IX: La Época Meiji (1867-1912); occidentalización desde arriba. (pp.138-169). Mexico: Grupo Editorial, Miguel
- Marín, F. (1985): "El Japón Tokugawa". Madrid: Cuadernos historia 16, 250 zkia.
- Montaña H., L. & Rendón C., M. (1994). Del zaibatsu al keiretsu. Organización y eficiencia productiva en la gran corporación japonesa. Gestión y Política Pública, vol. 111, primer semestre de 1994.
http://www.gestionypoliticapublica.cide.edu/num_anteriores/Vol.III_No.I_1ersem/MHL_Vol.III_No.I_1sem.pdf
- Nishijima, S. (2009). Desarrollo económico y política industrial de Japón: implicaciones para países en desarrollo. RIBE Discussion Paper Series No.246. Instituto de Investigación para Economía y Administración (RIEB) Universidad de Kobe. [2015-X-01an kotsultatua] <http://www.rieb.kobe-u.ac.jp/academic/ra/dp/English/dp246.pdf>
- Saito, O. & Takashima, M. (2015). "Estimating the shares of secondary- and tertiary-sector output in the age of early modern growth: the case of Japan, 1600-1874" (Txosten zkia. DP15-4). Tokyo. The Research Center for Economic and Social Risks of Hitotsubashi University.
- Statistics Bureau of Japan, Historical Statistics of Japan [2015-VI-20 an kotsultatua], <http://www.stat.go.jp/english/data/chouki/index.htm>
- Status of Daimiyo. Maps Online, ANU College of Asia & the Pacific. Australian National University. [2015-VI-29an kotsultatua] <http://asiapacific.anu.edu.au/maponline/base-maps/status-daimyo>
- Szczepanski, K. (n.d.). "First Sino-Japanese War, 1894-1895". [2015-VII-16an kotsultatua] <http://asianhistory.about.com/od/warsinasia/a/First-Sino-Japanese-War.htm>
- Szczepanski, K. (n.d.). "Facts on The Russo-Japanese War". [2015-VII-16an kotsultatua] <http://asianhistory.about.com/od/warsinasia/p/Russo-Japanese-War-Quick-Facts.htm>
- Takayoshi, M. (1966). The Development of Democracy in Japan, Taisho Democracy: Its Flowering and Breakdown. *The Developing Economies*, 612-637. [2015-VII-22an kotsultatua] <http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/j.1746-1049.1966.tb00495.x/pdf>
- Tiedemann, H., "Breve historia del Japón moderno", Editorial El Ateneo, Buenos Aires, 1965, PP. 141 y ss.

- Toledano, A., Mañes, N. y Julián, S. (2009). <<Las claves del éxito de Toyota>>. Más que un conjunto de herramientas y técnicas. Cuadernos de Gestión Vol. 9. Nº 2 (Año 2009), pp. 111-122. [2015-X-01ean kontsultatua]
<http://www.ehu.es/cuadernosdegestion/documentos/926.pdf>
- Yamamoto Isoroku, Japan's mastermind of the Pearl Harbor attack, is born. (2015). 2015eko irailaren 30ean kontsultatua, Canal History. <http://www.history.com/this-day-in-history/yamamoto-isoroku-japans-mastermind-of-the-pearl-harbor-attack-is-born>